


Europako txapelketako finalagaz, June Arbeek amaitu du denboraldia

3.000 metroko oztopodun proba 12. tokian amaitu du • 21



"Kontzertuetan ez da erraza; aurpegiak ikusi barik, jesarrita... zelan ohituko gara horretara?"

Kultura • Perlata talde arrasatearrak kontzertua eskainiko du zapatuan Zaldibarren, Iheskidegaz batera. 'Duguna esateko' diskoa aurkezten dabilta, "ahal den moduan". 2020tik Mario Cruz elorriarra batu zaie proiektura, bateria-jotzaile lez. Aste bi barru Berrizko Lorentzo Recordsera bueltatuko dira abesti berriak grabatzera. • 18



"Pilotak behar banau beti aurkituko nau"



Ibai Zabalak bere pilota ibilbide profesionaleko azken partidua jokatu du bihar arratsaldean, Zornotzako pilotalekuan. 2008tik gaur arte jokaturiko 507 partiduetan denerik bizi izan du: 2010ean irabazitako txapela, galduriko final biak, lesioak... Orain, denbora batean, pilota mundutik deskonektatzeko gogoia du, azken garaletako kontuekin "erreta" amaitu duelako, baina etorkizunean pilota munduari laguntzeko prest dagoela adierazi du. • 2-3

Matienako trafiko astuna arintzeko, Trañapadurako zubia eraikiko dute

Abadiño • N-634 errepidea errekaen beste aldeko industrialdeagaz (Pierburg enpresaren atzeko aldeagaz) lotu gura dute. Proiektuak 1,7 milioi euroko aurrekontua du. Udalak eta URA Agentziak finantzatu dute. • 8

ALKIMAX
Alquilamos soluciones

BERRIZ Eitua industriagunea, 71C · Tel.: 946 824 550
GERNIKA Golko Ibarra, 26 · Tel.: 946 271 310
www.alkimax.net



Aire girogailuak eta
erradiadoreak
alokairuan



SPOT COOLER SC-6200



SPOT COOLER SC-7400



SPOT COOLER SC-17500



Ibai Zabala Gandarias

Pilotaria

BERRIZ | 1987

datengaitik bakarrik, baita edukieragaitik ere. Oso aukera ona zen. 420 bat ikusle hartu ditzake %60ko edukieran. Berrizko frontoia, esaterako, oso txiki geratuko zen. Azkenean asmoak aurrera irten du eta eskerrak ematen dizkiet Izari eta udalari egindako lanagaitik.

Oinatz Bengoetxea izango duzu bikotekide. Zeuk aukeratu duzu?

Bai, neuk aukeratu dut bikotea. Argi nuen Oinatzegaz jokatu gura nuela. Gauza asko bizi izan ditut beragaz kantxan eta kantxatik kanpora, eta hartu-eman estua dugu. Nahikoa antzekoak

Argi nuen Oinatzegaz jokatu gura nuela. Gauza asko bizi izan ditut beragaz kantxan eta kantxatik kanpora

“Helburu errealistak izan ditut beti eta horrek on egin didala uste dut”

Ibai Zabala pilotari berriztarrak 13 urteko ibilbide profesionalari agur esango dio bihar Zornotzako pilotalekuan

PILOTA • JOSEBA DERTEANO

Laguna duen Oinatz Bengoetxeagaz osatuko du bikotea, eta biek Joseba Ezkurdia eta Xabier Tolosa izango dituzte aurkari. Ibilbide luze baten amaiera izango da. 21 urteagaz debutatu zuenetik, denerik bizi izan du: irabazitako txapela, galduriko final biak, makina bat lesio... Pilotarien eta enpresaren arteko gatazkan esku hartzea ere egokitu zaio.

Mundu honetan ezer ez da betiko eta heldu zara helmugara pilota profesionalan.

Heldu gara, bai. Nik, zorionez, bide luzea izan dut, gaur egun profesionaletan 13 urte egitea asko da eta. Pribilegiatu bat naiz. **2008ko maiatzaren 23a, Elorrioko pilotalekuan debutatu zenuen eguna. Nork esango zion 21 urteko gazte hari hainbeste iraungo zuela.**

Egun horren aurretik ez nuen pentsatzen profesional izatera helduko nintzenik. Hori lortu nuenean sekula ere ez nuen pentsatuko 13 urte egingo nituenik eta lehenengo mailan jokatuiko nuenik. Helburu errealistak izan ditut beti eta horrek on egin didala uste dut. Sarritan helburuak lortu ezik frustrazioak etortzen dira eta frustrazio ho-

riek norbere kontra jokatu dezakete. Niri ez zait hori pasatu. Umiltasunez eta larregi zoratu barik ibili naiz, pausoz pauso eta lan eginez.

lazko elkarriketa batean, pilotarien eta Baiko enpresaren arteko liskar hartako negoziazioetan parte aktibo izan zinenen, galdetu nizun ea frontean egote horrek ondorioak ekarri zitzakeen eta zure erantzuna “seguruenik bai” izan zen. Susmo haiek orain konfirmatu dira?

Hori neuk esatea ez dut uste egokia denik. Nire lana da nire balioa kantxan erakustea eta oso ondo jokatzen nabil. Nirea ematen dut, gazteei laguntzen diet... Azken batean, nire lana ondo egiten nabil eta, hala ere, kontratua berritzen ez badidate, bada, euren arrazoiak izango dituzte. Zuk aipaturiko hori faktore inportante bat izan dela? Nik baietz uste dut, baina uste bat baino ez da. Aitak esaldi on bat esan zidan behin: “Ibai, zuk albarana aspaldi egin zenuen, orain faktura jasotzea baino ez da falta”. Baliteke horrela izatea. Baina, tira, bizitza honetan egiten dugunaz kontsekuenteak izan behar dugu eta nik banekien ondorioak zeintzuk izan zitezkeen.

Gatazka hartatik denporatxo bat joan da eta, perspektiban begiratu, zure figurak indartuta irten zuela esango nuke. Berdin uste duzu?

Azken hileetan jasotzen nabilen maitasun hori Ibai Zabala pilotariak barik Ibai Zabala pertsonak lortu du. Pilotazaleen partetik zorian eta esker on mezu asko jasotzen nabil, bai kantxan bertan eta baita sare sozialetan ere. Kiroletik harago pertsonengan aletxo hori utzi duzula sentitzea pozgarria da. Ez dago horren moduko txapelik. Azken batean, maila apaleko pilotaria izan naiz. Ez naute gogoratuko nire jokoagaitik. Orduan, persona lez eta balore kontuetan pilotazaleengan eta enpresako kideengan nire arrastoa utzi badut eta bihar-etziko pilotarientzat bide bat zabaltzen lagundu badut, bada, hori pozgarria da niretzat.

Agur partidua Zornotzan jokatu duzu, 2009an bigarren mailako binakako txapelketako finala galdu zenuen frontoi berean.

Herrikide baten kontra galdu nuen, gainera, Asier Berasaluzeren kontra. Enpresa Masterreko jaialdi bat Zornotzan saltzen ahalegindu zela eta ez zuela lortu enteratu nintzen. Karmenen bueltan partidurik ez egotera

eta nire erretiroa orduantxe zenez, zeozer lortzen ahalegindu behar nuela pentsatu nuen. Nik nire bideetatik jo nuen eta Iñaki Izagaz [pilotari ohia eta zinegotzia Zornotzako Udalean] hartu-emanetan ipini nintzen. Nire inguruan erretiratu gura nukeela eta Zornotzako frontoia egokia iruditzen zitzaidala esan nion. Ez

gara gauza askotan. Gero, Aspek Ezkurdia eta Tolosa proposatu zituen aurkari lez eta oso partidu egokia iruditzen zait. Irabazi ala galdu, ikuskizun on batek irtetea gura nuke.

Ezkurdia sasoiaren badago, behar-bada lana sendo egitea egokituko zaizu.

Bai horixe! Hala ere, enpresaren hasierako proposamena hauze zen: Ezkurdia eta biok Bengoetxearen eta Zabaletaren kontra. Zabaleta atzean. Azkenengo partidua zela eta, mesedez, aldatzeko eskatu nien.

Profesionaletan txapel bat irabazita erretiratuko zara. 2010ean, Labriten, Iker Arretxegaz bigarren



2008ko maiatzaren 23an Elorrioko frontoian debutatu zuen eguneko irudia.



Ibai Zabalak eta Iker Arretxek bigarren mailako binakako txapelketa irabazi zuten 2010ean, Iruñeko Labrit pilotalekuan. JULENURIBE.COM.

mailako txapelketa irabazi zenuen. Orduko kronikak diote maila bikaina eman zenuela. Horrela gogoratzen duzu?

Finalean eta txapelketa guztian jokatu nuen oso ondo. Sasoiaren nengo. Txapelketa hori jokatzen nabilen bitartean lehenengo mailan ere jokatu nuen, ordezkapenak egiten. Nire debutean Oinatzegaz jokatu nuen, Sebastian Gonzalezen eta Mikel Laskurainen kontra. 2009an hasitako goranzko bidea berretsi nuen 2010ean.

Bigarren Mailan buruz buru ere jokatu duzu final bat. 2014an izan zen, Beñat Rezustaren kontra, eta 22-10 galdu zenuen. Zelan gogoratzen duzu final hura?

Gainetik pasatu ninduen. Finalean ez nuen aurreko partiduetako mailarik eman, baina bera gehiago izan zen. Gogoan dut lehenengo tantoan 15-16 pilota jo nituela airez. Orduan ere maila itzela zuen.

Lehenengo Mailan finalik ez, baina finalerdietako ligaxkara heldu zinen 2013an, Aimar Olaizolagaz. Pentsatu izan duzu inoiz zer falta izan zitzaizuen koska hura gainditzeko?

Inoiz pentsatu izan dut horretan, bai. Pablo Berasaluzegaz bromak ere izan ditut sasoi haren inguruan [Berasaluzek finalera heldu eta lesionatu egin zen partiduan]. Izan ere, ezkerreko errendimendua apur bat jaisten nuela egotzi izan didate beti, baina azken urte bietan ezkerreko oso ondo nabil eta Pablori beti esan diot 2013an oraingo ezker hau izan banu, berak ez zuela finalean tendoirik apurtu izango, bere ordez neu helduko nintzelako finalera. Baina, tira, urte hartan Irujo eta Zabaleta

Kantxan dagoenaren inguruan jende asko dago eta kirolari baten ibilbidean faktore determinantea da

elkarregaz zebiltzan txapelketan. Bikote ikaragarria zen. Gogoan dut finalerdietako partiduan, Gasteizen, partidua oso errebote inguruan eman nuela. Hurrengo egunean esnatu, irratia piztu eta hauxe izan zen entzun nuen lehenengo komentarioa: "Ibai Zabalak ez du erraz ahaztuko atzoko eguna". Holantxik izan zen. Baina denetatik ikasten da eta ni ikasten ahalegindu naiz beti.

Joan zen asteko ANBOTOKO kolaborazioan Iñaki Izak zure bertute nagusiak zerrendatu zituen. Profesionaltasuna zen eurretari bat.

Ni asko entrenatzekoa eta, behar zenean, asko zaintzekoa izan naiz. Eta kantxara irteten dudanean, dena ematekoa. Sarrera ordaintzen dutenei errespetu bat zor diegu eta nire irudirik onena eskaintzen ahalegindu naiz beti. Jakina, beti ez nuen lortuko eta egun txarrak ere izan ditut, baina gutxi izan dira, zorionez. Ez naiz huts lotsagarri handiak egitekoa izan, normalean segurtasuna ematen zuen atzelaria izan naizela uste dut.

Beste dohain bat 'erresilientzia' ei da, hau da, ezbeharrei aurre egiteko gaitasuna. Zure ibilbidean makina bat sufritu duzu lesioekin, batez ere eskukoekin. Horiek izan dira zure momenturik gogorrenak?

Bai. Eskuko lau operazio izan ditut, hankako hezur bi apurtu ditut, zuntz hausturak ere hainbat... Historial mediko nahikoa potentea dut atzetik. Lehenengo mailan erregulartasunez jokatzea eragotzi didan traba bat izan dira lesioak. Pasatu izan zait lehenengo mailan ondo aritu eta... lesioa! Horrek berriro behetik hasi beharra dakar. Baina berriro gora heltzeko kapaz

izan naiz. Egoera horiei buelta emateko zortea izan dut. Egoera horretatik indartuta irteten da, bai pilotaria eta bai pertsona. Sekula ere ez dela burua makurtu behar ikasi dut.

Aurrera begira, zer asmo dituzu? Pilota munduari lotuta jarraitu gura duzu modu batera edo bestera?

Nire praka zuriak armairuan sartuko ditut eta han geratuko dira. Hori argi dut. Pilota munduari dagokionez, deskonektatzeko gogoia dut. Apur bat erreta amaitu dut azken garaietan bizi izan ditugun hainbat kontu dela eta. Baina pilotak behar banau beti aurkituko nau. Pilotari buruz nabil, ez pilota profesionalari buruz. Gauza desberdinak dira. Pilota gauza asko da eta profesionalismoa pilota munduko arlo bat baino ez.

Euskal filologia ikasi duzu. Irakaskuntzan bidea egin gura duzu?

Irakaskuntzan jardun gura dut, euskara irakasten. Gaztelania eta ikasgai gehiago ere irakatsi nitzake, baina nik euskara irakasten gozatzen dut gehien. Irakasle ibili naiz urte osoan eta aurrean berdin jarraitzea da asmoa.

Zer esango zenieke urte hauetan guztietan lagundu dizutenei?

Berba bi: eskerririk asko. Zoritxarrez, sekula ere ez dira agertzen kirolariok gure inguruan ditugun euskarriak, batez ere, momentu txarretan. Kantxan dagoenaren inguruan jende asko dago: gurasoak, bikotekidea, kuadrillako lagunak... horiek asko balio dute eta kirolari baten ibilbidean faktore determinantea dira. Nik zorte itzela izan dut eta ahaleginduko naiz bihar hori zelan edo halan erakusten.



Zabalari sekula ere ez zaio animorik falta izan harmailetan. Irudian Zabalararen lagunak binakako txapelketako garaipena ospatzen. JULENURIBE.COM

Durango Udalak beste 143.000 euro eman dizkie 101 ostalaritza negoziari laguntza zuzenen bitartez

84 negoziok 1.500 euro jasoko dute bakoitzak. Urtarrilean banaturiko beste 190.000 euroei batuko zaizkie



Andra Mari elizpearen aurrealdeko ostalaritza negozio bat.

DURANGO • JONE GUENETXEA

Durango Udalak 143.000 euro eman dizkie herriko ostalaritza-negozioei, koronabirusaren ondorioz jasandako kalteak arintzen laguntzeko. Udal agintariek prentsa

ohar batean azaldu dutenez, onuradunek "datozen egunetan" jasoko dituzte laguntzak. 101 izango dira onuradunak, hau da, eskariak egin dituzten ia negozio guztiak. Izan ere, udalak jakinarazi du eskaera

bakarra baztertu duela, eskatutako baldintzak betetzen ez zituelako. Bestalde, udalak jakinarazi du 101 horietatik 84k gehieneko zenbatekoa jasoko dutela: 1.500 euro. Taberna eta jatetxeentzako

oinarrizko laguntza 1.000 eurokoa izan da, baina kopuru horri beste 500 euro gehitu dizkiote negozioek hiru behargin baino gehiago edo 30 metro karratutik beherako terraza badute. Orain esleituriko 143.000

euro horiek urtarrilean banaturiko beste 190.000 euroei batuko zaizkie.

"Badakigu laguntza hauek ez dituztela pandemiak eragindako kalte guztiak konpontzen, baina uste dugu erakundeok gure bizilagunei susperraldi ekonomikoaren bidera itzultzen lagundu behar diegula", azaldu dute Aritz Bravo eta Jorge Varela zinegotziek. "Pandemia aurreko egoera batera itzultzeko lanean jarraitu behar dugu", gaineratu dute politikari biek.

Gobernu taldeko kideak:
"Pandemia aurreko egoera batera itzultzeko lanean jarraitu behar dugu"

Berraktibazio Plana

Ostalariei eskainiriko laguntza hauek Berraktibazio Planaren zati dira. Plan horren barruan, Udalak 500.000 euro ipini zituen tokiko merkataritzari eta ostalaritzari modu zuzenean laguntzeko. Eginiko deialdi bietan 330.000 euro banatu zituen. Udalak jakinarazi duenez, soberan geraturiko dirua bestelako egitasmoak sustatzeko erabiliko dute. Adibidez, Merkataritza Bizi-berritzeko Plana, PERCO delakoa, garatzeko.

Bidegorriak egokitzeko proiektua gailendu da Durango aurrekontu parte hartzaileetan

Durango Udalak 100.000 euro ipiniko ditu egitasmo horretarako. Guztira, 1.695 herritarrek parte hartu dute bozketan, iazko edizioan baino bi bider herritar gehiagok gutxi gorabehera

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Herriko bidegorri sarea egokitzeko proiektuak jaso du durangarren babesik handiena, aldeko 218 botogaz eta 513 puntugaz. Horren atzetik etorri dira auzoetan frontoi txikiak ipintzeko proiektua (205 boto eta 485 puntu) eta Alde Zaharreko zein inguruetako kaleetan zoru irrista-gaitza ipintzeko proposamena (199 boto eta 440 puntu). Durango Udalak 100.000 euroko aurrekon-

tua aurrekusi zuen 2022ko aurrekontu parte hartzaileetarako, eta, aldaketarik ezean, diru kopuru horixe ipiniko du bidegorriak egokitzeko.

Udal agintariak pozik daude herritarren erantzunagaz. Iazko datuen aldean, bikoiztu egin da herritarren parte hartzea bozketan. 842 herritarrek parte hartu zuten iazkoan, eta 1.695 herritarrek eman dute botoa aurtengoan. Hori dela-eta,

"aurrekontuak lantzen" eta parte hartze kopuruak hazteko lanetan jarraituko dutela esan dute Iker Urkiza eta Julián Ríos zinegotziek. "Hile honetan bakarrik, sei parte-hartze prozesu izan ditugu martxan, eta herritarrek aukera izan dute udalaren kudeaketaren benetako eta zuzeneko parte izateko", nabarmendu dute. Durangon aurrekontu parte hartzaileak antolatzen diren hirugarren aldian da honakoa.



Durango bidegorri parte bat.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2021eko uztailaren 16a
19. urtea - 858. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

95.000 euroko diru poltsa Durangoko artisten lanak 18 beken bitartez bultzatzeko

Durangoko Udalak beka sorta bat kaleratu du herriko kulturgileen lan artistikoak diruz laguntzeko. Sortzaileek hile biko epea izango dute proiektuak aurkezteko. Epaimahai batek erabakiko du zein proiektu izango den bekaren onuraduna

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Honako izen hau ipini diote beka sortari: Durango, Sortzaileen leku. Eta horixe da bere helburua: koronabirusak kalteturiko kulturgileen eta artisten proiektuak diruz laguntzea. Ane Abanzabalegi zinegotziaren esanetan, udalak 18 proiekturi lagunduko die diruz, eta aurreratu du "inbertsioak ondarea" utziko duela Durangon. "Handia da herriko sortzaileen lana babes-tera ipinitako diru kopurua, guk sortzaileen lanari ematen diogun garrantziaren bestekoa. Ez dugu inor kanpoan utzi gura", adierazi du Abanzabalegik. Hori dela-eta, udalak 95.000 euro ipiniko ditu sei kategoria artistikotako proiektuak finantzatzeko. Hauek dira kategoriak: eszenari loturiko proiektuak, ikus-entzunezkoak, musika, literatura, arte plastikoak zein arte grafikoak, eta Durangoko herriko ondareari edo historiari loturiko kultura proiektu baten garapena.

Julián Ríos alkateordeak nabarmendu du bizi dugun krisialdia ez dela osasunari edo ekonomiari loturikoa bakarrik. Bere esanetan, "krisialdi sozial eta kulturala" ere bada egungoa. Horregaitik, Ríosek esan du beste sektore batzuk lagundu dituzten moduan, gobernu taldeak "oso argi" duela kultura ere badela



Arantza Arrazolak, Garazi Arrizabalagak, Julián Ríosek eta Ane Abanzabalegik martitzen goizean aurkeztu zituzten beka.

lagundu beharreko sektorea. Alkateordeak gogora ekarri du honako sorkuntza beka hauek 2,3 milioi euroko Erreaktibazio Planaren zati direla.

San Agustin kulturguneko arduradun Arantza Arrazolak beka eskatu ahal izateko oinarrietariko batzuk argitu ditu. Proiekturen bat finantzatzeko eskaria egin gura dutenek hile biko epea izango dute horretarako. Oinarriak udalaren web orrian edo Herritarren Arretara-

ko Zentroan eskatu beharko dira, eta beharrezko dokumentazioa Arte eta Historia Museoaan aur-

"Handia da beketarako ipinitako diru kopurua, sortzaileei ematen diegun garrantziaren bestekoa"

keztu beharko da proiektuaren azalpenekin, ezaugarriekin eta motibazioagaz lagunduta. Hiru

hilabeteren ostean, epaimahai batek erabakiko du zeintzuk diren beka jasoko duten proiektu irabazleak. Hortik aurrera, irabazleek urtebetera arteko epea izango dute proiektua garatzeko.

Garazi Arrizabalagak, Arte eta Historia Museoko arduradunak, argitu du proiekturen batek markaturiko kopurua baino finantzazio txikiagoa beharko balu, epaimahaiak aukera izango duela soberakina beste poltsaren batera lekualdatzeko.

Sorkuntza beka bakoitza, kopuruz kopuru

- **Eszenari loturiko beka (antzerkia, dantza eta zirkua):** 5.000 euroko 5 proiektu finantzatu dituzte. 25.000 euro guttira.
- **Ikus-entzunezkoak:** Proiektu bakarra finantzatu da. 15.000 euro ipiniko dituzte horretarako.
- **Musika:** 3 proiektu finantzatu dituzte, bakoitza 5.000 eurogaz. 15.000 euro guttira.
- **Literatura eta ilustrazioa:** 3 proiektu finantzatu dituzte, bakoitza 5.000 eurogaz. 15.000 euro guttira.
- **Arte plastikoak eta arte grafikoak:** 3 proiektu finantzatu dituzte, bakoitza 5.000 eurogaz. 15.000 euro guttira.
- **Durangoko herriko ondareari edo historiari loturiko kultura proiektua:** 10.000 euroko balioa duen proiektu bakarra finantzatu dute.

Langabeen kontratazioa sustatzeko laguntzak onartu dituzte Zornotzan

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako Udalak 67.000 euro baino gehiago ipini ditu kontratazio laguntzetarako. Alde batetik, 24 kontratazio lagundu ditu diruz, eta, bestetik, autoenplegurako beste 6 eskari ere bai. Onarturiko neurriagaz, Zornotzako Udalak gutxienezko kontratazio aldi bat bermatu gura du herriko langabeentzat. Iraupen hori orain artekoa baino luzeagoa da. Hiru hilabeteko gutxienezko kontrataziotik sei hilabeteko kontrataziora pasatuko dira kontratuok.

Kontratazioak egiten dituzten enpresek honako onura hauek jasoko dituzte trukean: udal-erriko langabe bat kontratatzen dutenek 4.000 eurora arteko diru laguntza jasoko dute. Eta

kopuru hori beste mila eurogaz handituko dute, kontratatutako beharginak Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen badu

(RGI delakoa). Bestalde, behargin baten lanaldia gutxienez %50 handitzen dutenek 4.000 euroko laguntza jasoko dute.



Zornotzako udaletxea.

Saioa Agirrek torturak salatu ditu epailearen aurrean

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Astlehenean, Saioa Agirre zornotzarren eta beste sei euskal herritarren kontrako epaiketa hasi zen Espainiako Auzitegi Nazionalan. Agirrek martitzenean deklaratu zuen eta epaileari kontatu zion, orain 11 urte, atxiloaldiak iraun zuen bitartean, torturatu egin zutela. Agirrerren berbetan, guardia zibilek kolpeak jo zizkieten, biluz-

tu egin zuten, ariketa fisikoa egitera behartu zuten eta eraso sexistak egin zizkieten. Auzipetuak euskal presoan abokatuak edo presoan aldeko mugimenduetan aritutako kideak dira. Fiskaltzak 77 urteko kartzela zigorra eskatzen du errentzat, ETAko kide zirelakoan. Agirrek sarri esan du haien lana "konfrontazio armaturik bako eszenatoki bat" sortzea izan zela.



Saioa Agirre auzipetu zornotzarra.

AHTrik Ez plataformak manifestaziora deitu du uztailaren 31rako Atxondon

Manifestazioaz gainera hainbat ekintza antolatu dute: kontzertuak, hitzaldiak, ikuskizunak...



Domekan prentsaurrekoa eman zuten Atxondon.

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondoko landak bete eta bestelako bizi ereduak sortzeko alternatibak badituztela ozen aldarrikatzeko asmoz, AHTrik Ez Akanpada dinamikak hiru eguneko kanpaldira deitu du uztail amaierarako. Hiru egun horietarako, egitarau zabala antolatu dute, tartean manifestazio

Atxondon uztailaren 31n egingo den manifestazioa 18:30ean hasiko dela jakinarazi dute

nazionala. Mobilizazioa uztailaren 31n izango da, Atxondon, 18:30ean hasita. Horrez gainera, kontzertuak, hitzaldiak eta ikus-

kizunak egongo dira, besteak beste.

"Abiadura handian inposatu dizkiguten politika diruzale kapitalisten aurrean planto egin eta bestelako bizi ereduak badaudela ezagutzera emateko momentua da", azaldu zuen Oihana Azkorbeitiak domekan Atxondon emandako prentsaurrekoan.

Muntsaratzeko eta Irazolako bizilagunak kezkatuta AHTaren obren eraginagaitik

Obretako kamioiak euren etxe ondoetatik pasatuko dira

ABADIÑO • EKAITZ HERRERA

Muntsaratz eta Irazola baserri inguruetako bizilagunak kezkatuta daude. AHTa eraikitzeko lanetan parte hartuko duten kamioiak euren baserri ondoetatik pasatuko dira laster. Trafiko joan-etorri hori etenba-koa izango dela diote, eta aurreikusitako egoera horrek arazoak ekarriko dituela auzora. Arrate Mardaras da hango bizilagunetarikoa bat. Dioenez, "baserri inguru honetako errepidea 3,2 metro zabal da. Ezinezkoa da auto bi aldi berean gurutzatzea. Are gutxiago kamioiak". Horregaitik, errepidea zabaltzeko asmoa dute. "Baina hor arazo bat dago, errepi-

de bazterrean erreka bat dago eta. Proposatu duten irtenbidea da erreka bategaz bideratzea. Baina horrek kezkatu egiten gaitu. Hemen egundoko uriolak egon ohi dira eta irtenbide horrek gauzak are gehiago okertuko dituelakoan gaude", dio Mardarasek. Horri guztiari bestelako kezkak batu dizkio. "Tonelaje handiko kamioiak pasatuko dira. Bidea estua da, oinezkoentzako arriskutsua, ez dago farolarik, eta joan-etorri horiek gure baserri-etxeen egiturak kaltetu ote ditzakeen beldur gara", dio. Errepide nagusitik Irazolarako baserri eremuan hamar bat baserri daude.



Muntsaratzeko errepide nagusitik Irazola alderako errepidea eta erreka.

Elorrion 12 bat lagunek parte hartu dute adinekoentzako jardueretan

Udalak modu positiboan baloratu du aisialdi osasungarriko eta aire zabaleko programa

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Sedentarisismoa prebenitu, zahar- tze aktiboa bultzatu eta jarduerak fisikoa egiteko asmoz, Elorrioko Udalak aisialdi osasungarriko

eta aire zabaleko programa martxan ipini zuen apirilean. Udalak ohar baten bitartez jakinarazi duenez, programan 12 bat lagunek parte hartu dute, saio bako-

tzeko. Eta "balorazio positiboa" egiten dute.

"Herritarren erantzuna bikaina izan da. Programan parte hartu duten pertsona askok adierazi digute pozik daudela eta udazkenara begira egingo diren jardueretan parte hartzen jarraitzeko asmoa dutela. Esperientzia aberasgarria izan da eta horrelako programak bultzatzen eta etorkizuneko jarduerak planifikatzen lagundu digu", adierazi du Dani Palacios kirol eta jarduerak fisikoko zinegotziak.

Gehiengoak emakumeak

Aisialdi osasungarriko parte hartzaile gehienak 65etik 75 urtera bitartekoak izan dira. Horrez gainera, emakumeen presentzia nabarmendu beharra dagoela azaldu dute, parte hartzaileen %85 emakumeak izan dira eta.



Parte hartzaile gehienak 65etik 75 urtera bitartekoak izan dira.



Jaurlaritzak eman dio diru laguntza udalari.

117.000 euro natura ondarean eta klima aldaketan eragiteko

Ekintzak 2021ean zehar hasiko dira eta Legañoako basoan zein Oizko basoetan izango dira

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Berrizko Udalak 117.000 euro lortu ditu Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa arloko diru laguntza lerroetatik. Udaletik jakinarazi dutenez, natura balioak kontserbatzeko eta berreskuratzeko diren ekintzak 2021ean zehar hasiko dira. Legañoako basoan eta

Oizko basoetan izango dira, eta, gainera, herritarrak ere proiektuaren parte egingo dituzte. "Herritarrek natura ondarearen garrantziaz jabetu behar dute, eta, hori lortzeko, ekintza guneetara irteera gidatuak egingo ditugu", azaldu dute Berrizko Udaleko arduradunek ohar baten bitartez.



Ostalaritza gida



Durango



OIERDI

Herriko gudarien 8, DURANGO

Tel.: 946 129 824

Gosari eta pintxo aukera handia giro ezin hobean.



Iurreta



GAUARGI

Dantzari Etxetaldea, IURRETA

Tel.: 944 356 674

·Gosariak, pintxoak, molleteteak, rabak, errazioak eta askotariko tortilak enkarguz,...



Durango



AI AMA

Joxe Miel barandiaran 2, behea, DURANGO

Tel.: 946 232 240

Gosaldu bazkaldu zein afaltzeko aukera. Gozo eta osasuntsu gainera!



Abadiño



ABARKETERUENA


Iturritxo, 6 - Txanporta plaza, ABADIÑO

Tel.: 944 657 790

Eguneko menuak eta asteburuetako menu bereziak. Goizetik pintxoak. Giro oso ona.



Durango



MIKELDI TABERNA

Kalebarria, 7 - DURANGO

Tel.: 944 073 988

Gosari eta pintxo aukera handia giro ezin hobean.



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**



"Kilometro inguruko jaitsiera da, azkarra, bihurgune askokoa, eta ikusteko ere ona izango da"

Zaldibarko txosnaguneak antolaturiko egitarau kulturalaren azkeneko ekitaldia izango da goitibehera jaitsiera; 12:00etan hasiko da, Goierri auzoan



Eneko Iraeta (Tonucci), Antonio Villanueva (Gautxori) eta Oier Letamendia (Akerbeltz).

dugu parte hartzera; beste herri batzuetan ez da galdu goitibeheren ohitura, eta horiekin sare moduko bat osatzea gura genuke", esan du Oier Letamendiak. Jaitsieraren ezaugarriak kontuan hartuta, segurtasun neurriak bereziki zaindu dituzte. "Kilometro inguruko jaitsiera da, Goierriko bidegurutzetik enpresen sarre-raraino ia; jaitsiera azkarra da, bihurgune askokoa, eta ikusteko ere oso ona da. Asko disfrutatuko dugu, bai jaisten, eta baita ikusten ere", gaineratu du.

Antolatzaileak pozik daude jaitsiera berreskuratzeak eduki duen harreragaz, izan ere, hainbat belaunalditako zaldibartarrak batuko dira. 90eko hamarkadan erabiltzen zuten goitibehera bat berreskuratu dutela ere esan dute: "Hamalau urte geroago, hor egongo da berreskuraturiko goitibehera, aldats berean, gidari beragaz, jende beragaz, zaharra-goda badaude ere" (barrez).

ZALDIBAR • ARITZ MALDONADO

Udako egitarau kulturala borobiltzeko, Zaldibarko txosnaguneak goitibehera jaitsiera berreskuratu du. Hamarkada bat geroago, hamasei goitibeherak Goierri auzoko bidegurutzetik beherako aldatsa jaitsiko dute. 90eko hamar-

kada inguruan galduriko ohitura berreskuratzea da helburua, Oier Letamendia zaldibartarraren esanetan. Bera da ekimenaren antolatzaileetarikoa bat.

Antzeko jaitsiera bat 2007an egin zuten azkenengoz, Letamendiak dioenez. Iñaki Urizarrek eta

Arkaitz Ortuzar 'Pestu'-k erronka bota zioten elkarrri, goitibeheragaz bata eta mountainboardagaz bestea. Mountainboarda patinete antzeko bat da, gurpil handiagoak eta balazta dituena. Itxaronaldi luzearen ostean, herritarrek gogotsu berreskuratuko

dute jaitsiera, beraz. Goitibeheraz gainera, parte hartzaileek beste-lako tramankuluak ere edukiko dituzte: goitibeherak, mountainboarda, drift trikea...". Eta ibilgailuak ez ezik, gidariak ere askorikoak izango dira. "Zaldibartik kanpoko jendea ere gonbidatu

Sputnik goitibeherak

Goitibeheretik zaletasuna gazteen artean ere zabaltzeko, Goitibehera Txikia ekitaldia egingo dute. 16:00etatik 18:00etara bitartean, umeak Sputnik goitibeheretan ibili ahalko dira, Maldanbehera elkartegaz.

Trañapaduran zubia eraikita, Abadiño Udalak trafiko astuna Traña-Matienako herrigunetik atera gura du

N-634 errepidea errekaren beste aldeko industrialdeagaz (Pierburg enpresaren atzeko aldeagaz) lotu gura dute



Trañapadurako zubi zaharra.

ABADIÑO • JONE GUENETXEA

Abadiño Udalak Trañapaduran N-634 errepidetik industrialdera sartzeko zubi berri bat eraikitzeko behin betiko proiektua onartu du gaur osoko bilkuran. Alderdi guztiek aho batez onartu dute egitasmoa. Hurrengo pausoa proiektua lizitatzea izango da. Mikel Garaizabal alkateak azaldu duenez, dagoeneko administrazio-baimen guztiak dituzte. Proiektuak 1.727.509 euroko aurrekontua du. Obra guztia Uraren Euskal Agentziak (URA) eta Abadiño Udalak finantzatuko dute. URAk lizitatu eta zuzenduko du obra.

"Gobernu taldeak luzaroan itxaron duen proiektua da, eta hamar-kada bi baino gehiago atzeratu da, bere konplexutasunarengatik arazo administratibo ugari egon di-

relako", azaldu du gobernu taldeak. Obra honegaz, Traña-Matienako hirigunetik trafiko astuna atera gura dute.

EH Bilduk plenoan esan duenez, proiektua aurrera joatea oso albiste ona da Abadiño mugikortasuna hobetzeko. Hala ere, Mikel Urrutia zinegotziak kritikatu duenez, "espropiazioak egin beharko dira eta horren kostua ez dago proiektuan sartuta".

Mikel Garaizabal alkateak azaldu duenez, dagoeneko administrazio-baimen guztiak dituzte

N-634 eta industrialdea

Proiektu honegaz N-634 errepidea (Garajes Serafin ondoko biribilgunea) eta Traña-Matienako industrialdea lotu gura dituzte. Errepide horretatik doan trafiko astuna Hostal San Blas ondotik beharrean, zubi berri honetatik pasatuko litza-teke, herrigunea saihestuta.



CLASE C BERRIA.

Erlaxatu masaje-funtzioa duten ingerada anitzeko eserlekuak dituen Clase C Berlina baten barruan eta gozatu erosotasun handienaz funtzio guztiak erabiltzeaz, bigarren belaunaldiko adimen artifiziala duen MBUX sistemari esker.

Eraman zeure ongizate-zona nahi duzunera.

Erregai konbinatuaren kontsumoa (l/100 km): 6,4 -7,2 eta CO₂ isurtze konbinatua (g/km): 144 -163.

*Mercedes-Benz Renting-en adibidea: Clase C 200 Berlina, AMG Line duena, hilean 680 €-ren truke BEZ barne, hasierako diru-ekarpenik gabe, 48 hilabetetan eta 15.000 km/urtean. Frankiziarik gabeko arrisku orotako aseguru eta mantentzea barne, pneumatikoak ez daude barne². Iraunaldia: 2021/09/30era arte burututako eskaintzak, 2021/10/15era arte onartutako eskaerak eta 2021/11/30era arte aktibatutako kontratuak, gutxienez, 24 hilabeteko iraupena. Mercedes-Benz Renting, Mercedes-Benz Renting S.A. -Bruselas etorbidea, 30, 28108, Alcobendas-Madril-ek komertzializatzen duen marka da. Argazkiko modeloa agian ez dagokio eskaintzari. Informazio gehiago www.mercedes-benz.es-en

Clase C 200 **AMG Line opari.**

Orain sarrerarik gabe.

Hilean 680 €-ren truke¹ 48 kuotatan.

Mercedes-Benz Renting dena barne².

Clase C berria.



Aguinaga

Mercedes-Benz kontzesionarioa
Retuerto Kalea, 38.
48903 BARAKALDO.
Tel.: 94 497 00 74.
www.mercedes-benz-aguinaga.es

Boroa Enpresa-Parkea, 2A-3 Partz.
2A-3. 48340 ZORNOTZA.
Tel.: 94 630 17 47.

Botika Zaharra kalea, z/g.
48014 BILBAO (DEUSTU).
Tel.: 94 447 08 40.

Iparragirre etorbidea, 90.
48940 LEIOA.
Tel.: 94 463 11 75.

Mañariko Udalak 4,1 hektareako lursail bat erosiko du Urkiolara bidean, eta bertoko baso moduan berreskuratu gura du

Baso autoktonoak sortzen esperientzia duen Lurguia fundazioagaz hitzarmen bat sinatu gura dute etorkizunean proiektua aurrera eramateko



Udalak erosiko duen lursaila Mañaritik Urkiolarako bidean dago.

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Mañariko Udalak Urkiolara bidean dagoen baso zati bat erosiko du eta etorkizunean baso autoktono bat sortu gura dute bertan. Guztira, 41.314 metro karratu ditu, hau da, 4,1 hektarea. Salerosketa datorren astean bertan gauzatzea da udalaren asmoa, 8.000 euroko inbertsioa eginda.

"Apurka-apurka lursailak erosi eta publiko bihurtzea da gure asmoa, eta eurretan bertoko basoak sortzea. Lursail hau erosteko auke-

udalak aurrera egin du erosketaren prozesuagaz. Lursail horretan pinuak eta antzerako zuhaitzak zeuden. Horiek botata daude gaur egun, eta, beraz, garbituta dagoen eremu bat eskuratuko du udalak.

Etorkizunean hitzarmen bat sinatu gura dute Lurguia fundazioagaz, adituak direlako lursailak bertoko baso moduan berreskuratzen. "Adituak dira horrelako kontuetan eta euren aholkularitza izango dugu proiektua gauzatzeko", esan dute.

Erosketa datorren astean gauzatzea gura dute, 8.000 euroko inbertsioa eginda

Lurguia Fundazioak biodibertsitatearen kontserbazioa sustatzea du helburu, besteak beste

ra sortu zitzaigun eta aurrera egitea erabaki dugu", adierazi du Ainara Otxotorena alkateak.

Lehenengo, Bizkaiko Aldundiak lursail horiek erosteko interesik batorote zuen kontsultatu zuten, baina interesik erakutsi ez zutela ikusita,

Lurguia Fundazioa irabazi-asmoirik bako erakunde pribatua da eta biodibertsitatearen kontserbazioa eta natura-ondarearen kudeaketa sustatzea du helburu: espezieak, habitata, loturiko prozesu ekologikoak eta paisaia, besteak beste.

Mallabiko boulder berria irailtik aurrera egongo da erabilgarri

Ererikoetatik babesteko zoru berezia ipintzea falta da. Gero, sarrera-irteerak kontrolatuko dituen sistema ipiniko dute eta irailtik aurrera ipiniko dute martxan azpiegitura berria



MALLABIA • J.D.

Mallabian boulder bat egiten dabilta, kultur etxearen eraikina dagoen azpialdeko gela batean, eta irailtik aurrera egongo da erabilgarri, udaletik jakinarazi dutenez. Azken aste bietan, eskaladarako egiturak ipini dituzte,

Azpiegitura berria erabili gura duten herritarrek aurretik hartu beharko dute txanda

eta, orain, ererikoetatik babesteko zoru berezia ipintzea falta da. Horren ondoren, sartu-irteerak kontrolatuko dituen sistema ipiniko dute. Boulderra erabiltzeko, aurretik eskatu beharko da txanda. Atea txartel batez edo mugikorragaz zabaldu ahalko da, aplikazio baten bitartez.

Eskaladarako gunea eraikita dago eta zoru ipintzea falta da.

Eskolarako bidea eta eskola aurreko patioa asfaltatuko dituzte Otxandion

OTXANDION • J.D.

Uztailean, Otxandioko eskolarako bidea eta eskola aurreko patioa asfaltatuko dituzte. Gune hori "txarto" dagoela azaldu du Egoitz Garmendia alkateak eta "eskolara joateko gehien erabiltzen den bidea da". Horregaitik konponduko dute. Lan horiekin batera, patioa txintxaunen azpiko zoru babesgarria ere berziztuko dute.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saitetik diru laguntza bat

Lanak uztailean egingo dituzte. Txintxaunen zoru babesgarria ere aldatuko dute lanen barruan

lortu dute. Laguntza horrek eskola aurreko patioaren asfaltatzearen %60 finantzatu du. Patioa eta bidea konpontzeko gainerako dirua udalak ipiniko du. Proiektuaren zenbateko osoa 33.000 eurokoa da.

Udaleko webgunera sartzeko helbide berria erabilgarri: 'www.izurtza.eus'

IZURTZA • J.D.

Izurtzako Udaleko webgunera sartzeko helbide berria martxan da: www.izurtza.eus. Helbide honek lehengo '.net' amaiera ordezkaturiko du.

Interneteko bilatzaileetan helbide berria gorago agertu dadin lanean ari direla azaldu dute udaletik

Hamar urtean indarrean egon eta gero, aurreko helbidea iraungi egin zen udalak berritu aurretik. Gero, arazoak izan zituzten helbide hori berreskuratzeko. Hori ikusita, euskarazko '.eus' domeinura aldatzeko tramiteak hasi zituzten eta orain hilabetetik hona helbide horrengaz funtzionatzen dute.

Orain, helbide berria oso behean agertzen da Interneteko bilatzaileetan. Helbidea gorago agertu dadin lanean dabilzala azaldu dute udaletik.

Iurretarek herrigunean komun publiko bat egitea lehenetsi dute

2021eko aurrekontu parte hartzaileetan aurkezturiko zortzi egitasmoen artean botorik gehien jaso dituen proposamena izan da; Iurretako Udalak 50.000 euroko inbertsioa egin beharko du proiektua gauzatzeko



Aurrekontu parte hartzaileen bozketa prozesuan, 184 herritarrek parte hartu dute.

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako Udalak komun publiko bat egingo du herrigunean, 2021eko aurrekontu parte hartzaileetan botorik gehien jaso dituen proiektua izan da. Zortzi proiektu igaro ziren bozketa fasera, eta horietatik aukeratu behar izan dituzte herritarrek. Uztailaren 2an amaitu zen bozketa eta 184 iurretarek parte hartu dute prozesuan. Hori izango da gauzatu ahal izango den egitasmo bakarra; izan ere, komun publikoa egiteak 50.000 euroko inbertsioa eskatuko du, udalak aurrekontu parte hartzaileetarako gordetako diru poltsa osoa.

Apirilean hasi zen aurrekontu parte hartzaileen prozesua, herritarren ekarpenak jasota. Guztien azterketa teknikoa egin eta gero, zortzi proiektu pasatu ziren bozketa fasera. Horien artean, herritarrek hiru aukeratu behar zituzten. Udalak eskerrak eman dizkie parte hartu duten herritarrei, "urtetik urtera gora doan parte-hartzeagaitik". Udalak herriko komertzioen lana ere eskertu du, laguntza eman dutelako prozesua errazagoa izan dadin.

Garaiko udalekuek aho zapore ona utzi dute

Orain hiru aste hasi ziren eta bariku honetan amaitu dira. Herriko hogeitasei umek parte hartu dute udalekueetan

GARAI • EKAITZ HERRERA

"Orokorrean pozik gaude, dena ondo joan da", dio Marina Agirre Berriozabalek, Berbaro elkarteak gazte arloko teknikariak. "Eskulan pilo bat egin dugu. Kometa bat, adibidez. Eta ur-jolasekin ere ibili gara", gaineratu du. Berbaro elkarteak orain hiru aste ekin zion Garain udalekuak eskaintzeari. Denbora tarte horretan, 4 urtetik 12 urtera bitarteko ho-

gei umek parte hartu dute. "Asete bakoitza, gainera, tematikoa izan da. Naturari, berdintasunari eta kultur aniztasunari loturiko gaiak landu ditugu", azaldu du Agirrek. Eguraldi txarragaitik bertan behera utzi behar izan zuten Debako hondartzara egitekoa zuten irteera. Baina erraz topatu zuten konponbidea, umekin Izurtza eta Mañaria aldeko base-riak bisitatuta.



Garaiko umeak maskarak pintatzen udalekueetan.



ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Tel.: 946 816 673
www.zarateyelexpe.com
Bixente Kapanaga 19, Iurreta

ELORRION, HURRENGO ERAIKUNTZA

Azkeneko biak!

4 gelakoak (143m²)

Terraza oso zabalak (106m²)

Garaje zabalak (37-86m²) + beste toki bat (28m²)

Lorategiagaz

Eraikinaren energia kalifikazio-etiketa: A

Gauerditik 06:00ak arte bizikideak ez diren jende multzoak elkartzea debekatu du Jaurlaritzak

Positibo kasuen gorakada egon da, eta Durangaldean 378 kasu atzeman dituzte 14 egunean

DURANGALDEA • A.M.

Labi batzordearen bilera teknikoaren proposamenak kontuan hartuta, Eusko Jaurlaritzak kalean gauez jende taldeak elkartzea saihesteko neurria onartu du, dekretu bidez. Araua barikuko 00:00etan sartu da indarrean. Eusko Jaurlaritzaren esanetan, jai giroko jende topaketak ez egitea da dekretua onartzearen helburua.

Bestalde, azken egunetan agerturiko koronabirus kasu positiboek arduratuta, bertan behera utzi dute Otxandioko asteburuko



Durangon 156 kasu positibo egon dira 14 egunean.

agenda. Bando baten bitartez, Otxandioko Udalak nabarmendu du "birusaren agerraldi berri baten aurrean" egon daitezkeela; herriko eragileekin berba egin eta gero hartu zuen egitaraua bertan behera uzteko erabakia. Uztailaren 20an, Gobernu Bilkura berriro batuko da, egoera aztertu eta uztailaren 24tik 25erako asteburuari begirako erabakiak hartzeko.

Intzidentzia metatua, goruntz

Durangaldean kasu positiboek gora egin dute, eta azken hamalau egunetan 378 kasu positibo atzeman dituzte eskualdean. Honenbestez, Durangaldea eremu laranja legoke; Abadiño eta Durango eremu gorrian daude.

Politikan

Jesica Ruiz
PSE-EE



Sare berdea eta bidegorria

Joan den astean jakin genituen aurtengo aurrekontu parte hartzaileen emaitzak: 1.695 pertsonak parte hartu dute, orain bi urte baino 1.000 gutxiagok. 2020an proposamen bozkatuena Durango Berdeagoa oinezkoentzat eta bizikletentzat kale gehiago jartzeko ideia izan bazen, aurten antzerako kontu bat izan da, konkretuki, bidegorriak egokitzea. Horrek esan nahi du biztanleria (zehatzago esanda, parte hartzen dutenak, ez dira heltzen %6ra) oso argi daukala zer nahi duen.

Beste alde batetik, hilabete daramagu hiri antolamendurako plan orokorreko (HAPO) tailerrekin. Lau tailer izan dira (ingurugiro fisikoa, eguneroko Durango, jarduera ekonomikoa eta etxebitza) eta parte hartzea oso baxua izan da. Tailer bakoitzean 25-27 pertsonak parte hartu dute, jende bera tailer guztietan, eta tamalez gazteak ez dira gerturatu. Pena bat da hain jende gutxi egotea, eta are gehiago herriarentzat hain garrantzitsua izango den plan honetan. Horrek adierazten digu ez daukagula parte hartzeko kulturarik. Tailerretan aurrekontuetan lehenengo postuan dauden proiektuak errepikatu dira behin eta berriro, sare-berdearen plana amaitzea trenbidearen bidea jarraituz eta bizikletentzako bide gehiago egitea.

Datuak ikusita, argi dago horren inguruan ez dela behar parte-hartze prozesu gehiago egitea. Dagoeneko badakigu Durangoko Udalak inbertsio bat egin behar duela bidegorriak amaitzeko eta hobetzeko, eta sare-berdea handitzeko.

Durangaldea asteen

1,2 milioi euroko aurrekontua Astolako igerilekuko estalki berria eraikitzeko

Abadiño | Abadiñoako Udalak 1.286.572 euroko aurrekontua dauka Astolako igerilekuko estalki berria eraikitzeko. Mikel Garaizabal alkateak plenoan azaldu duenez, proiektua onartuta dagoenez hile honetan esleitzea da asmoa. Obrek 6 hilabeteko exekuzio epea izango dute.

Aitzol Maurtua atxondarra Basauriko espetxera gerturatuko dute

Atxondo | Aitzol Maurtua preso atxondarra Basauriko (Bizkaia) espetxera gerturatuko dutela iragarri dute asteen Espainiako Espetxe Erakundeek. Maurtua 2002ko ekainean atxilotu zuten, Algemesín (Valentzia, Herrialde Katalanak). Dueñasko espetxetik (310 kilometro) hurbilduko dute preso atxondarra. Hogei urteko espetxe zigorra betetzen dabil.

Abadiñoako Udalak gazteentzako kirol eta kultur jarduerak antolatu ditu uztaileko

Abadiño | Besteak beste, bideo-jokoak, eskalada jarduerak, freestyle bike erakustaldia eta paintballa egongo dira. Hain zuzen ere, zapatu eta domekan bideo-kontsolak dituen kamioi bat ipiniko dute Matienako Traña plazan eta Zelaietako Txanporta plazan, hurrenez hurren. Jardueretan parte hartu ahal izateko, aurretik izena eman beharko da.



Urtebete igaro da Forjarien jauregia okupatu eta Munarri gaztetxea sortu zutenetik

Zornotza | Orain urtebete Zornotzako Gazte Asanbladak Forjarien jauregia okupatu eta bertan Munarri gaztetxea sortu zuen. Urteurrena ospatzeko, egitarau zabala prestatu dute. Bariku honetan, adibidez, zinema eskainiko dute kalean. Bihar, herri kirolak, bazkaria eta zuzeneko musika izango dituzte. Egitarauak datorren astean izango du segida. Datorren barikuan, Segundo traste, Out of the blue eta Oktavio Nievsky y Los Tomatez Azules taldeen kontzertuak egongo dira. Aurrerago, gaztetxeari buruzko dokumentala eskainiko dute. Azken hau uztailaren 27an izango da.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

hitz liburudenda **#nobedadeak**
artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

EURI ZITALARI ESKER
Itxaro Borda (Susa)

IZARAK
Goizane Aizpurua (Alberdania)

EGUN GORRIETAN
Elena Martinez (Alberdania)

Eskaerak WhatsApp-ez eskatu ☎ 686 214 964, % Bizum-ez ordaindu eta etxean jaso

BODEGUILLA

TRANA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85

MAKALLAU saltsan
KONFIANTZAN

MAKALLAU SALTSANen bakailaorik onena eta osagai guztiak eskaintzen dizkizugu zure lapikoak arrakasta handia izan dezan: piper txorizeroa, baratxuri gorria, kalitate handiko olio eta ab.

Bakailao kozinatua ere aurkituko duzu, mota guztietan: pil-pil, bizkaitarra, ajoarrieroa, kroketa, bakailaoz betetako piperrak, etab.

Eta ez galdu Nafarroako kalitate-labeldun kontserbako produktuak: Zainzuriak, orburuak, piperrak, etab.

Enkarguak egiteko edo informaziorako, telefonoz edo whatsapp bidez gugaz kontaktuan jarri: 688 773 205 / 688 734 329




SEKUENTZIA

Jarraitu sekuentziari eta galdera ikurra dagoen laukian marraztu dagokion irudia.

				?		
						?
		?				
	?					
?						



DOMINOA


Marraztu dagokion irudia lauki zurietan.



ZENBATU

Zenbat izozki daude bakoitzeko?





LABIRINTOIA





'Jantzari'

DOKUMENTALA ZORNOTZA :: Uztailak 17

'Jantzari' dokumentala proiektatuko dute Zornotzan

Dantza tradizionalen aldaketa handiak gertatu dira azken urteetan genero ikuspuntutik. Gaur egungo errealitatera egokitzen joan dira. Esaterako, Iurretaren kasuan, 2018an ezpatadantzari talde parekide batek debutatu zuen Iurretako plazan lehenengoan, San Migel egunean. Garapen

hori dokumentalean jaso da Iurretako dantza taldearen, Bideografik ekoiztetxearen eta ANBOTO-ren arteko elkarlanari eskerrak.

Irailean estreinatuko zuten Iurretan *Jantzari*. Harrezkero, Euskal Herriko hainbat areto eta zinematan eman dute. Zapatuan, Zornotza Aretoan egongo da, 20:00etan.

Uztailaren 16an

BERRIZ antzerkia
'SÓ' (XamPatito Pato), 19:00etan, eskolako patioan.

DURANGO antzerkia
'Full house' (Electrico28 konpainia), 19:00etan, Aurora Abasolo parkean

ELORRIO musika
'Hertzainak: nortasunaren erroak' (Juanma Urriza Boskotea), 20:00etan, Ganondo parkean.

ZALDIBAR kirola
Caixabank Mastersa: Olaizola II-Zabaleta Laso-Tolosaren kontra eta Elordi-O.Etxebarria Zubizarreta III-Uriondoren kontra, 22:00etan, Olazar pilotalekuan.

ZORNOTZA antzerkia
'Etzerik txikiena' (Yarleku konpainia), 18:00etan, Zornotza Aretoan.

ZORNOTZA musika
Kittu, 20:00etan, Bernagoitia auzoan.

ZORNOTZA musika
Laru + Fitoskins, 20:00etan, Beheko eskolan.

Uztailaren 17an

ABADIÑO jolasak
Bideo-jolasak, Traña-Matienako plazan, (11:00-13:00/17:00-20:00). 13-17 urte bitarteko umeentzat.

DURANGO dantza
'Echoes' (Moveo Danza), 20:00etan, Ezkurdin.

ELORRIO musika
'Loreak eta zauriak' Xabier Leteri kantari, 20:00etan, Ganondo parkean.

ZORNOTZA musika
Eztandap, 20:00etan, Andrandi auzoan.

ZORNOTZA ekitaldia
Artzain Txakurren Txapelketa, 11:00etan, Jauregibarrian.

ZORNOTZA musika
STR, 21:00etan, Jauregibarriako aparkalekuan.

Uztailaren 18an

ABADIÑO jolasak
Bideo-jolasak, Txanporta plazan, (11:00-13:00/17:00-20:00). 13-17 urtekoentzat.

ELORRIO ikuskizuna
'French session' (Paul San Martin), 19:00etan, Ganondo parkean.

ZALDIBAR goitibehera
Goierri goitibehera jaitsiera, 11:00etan, Goierriin.
Goitibehera txikia, 16:00etan.

ZALDIBAR dantza
Alurr dantza taldea, 17:30ean, Olazar pilotalekuan.

ZORNOTZA jolasak
Parkea eta tailerrak, Larreako Goiko eskolan (10:00-14:00/16:00-20:00).

ZORNOTZA zinema
'Non dago Mikel?' pelikula, 20:00etan, Zornotza Aretoan.

ZORNOTZA musika
Udazken txistulari taldea + INUN, 12:30ean, Amorebieta IV Frontoian.

ZORNOTZA musika
Humberto Luis, 20:00etan, Jauregizahar auzoan.

Uztailaren 19an

ZALDIBAR antzerkia
Victoria Moon eta lesbianak, 19:00etan, Olazar pilotalekuan.

ZORNOTZA hitzaldia
Jai ereduaren inguruan (Bilboko Konpartsak), 19:00etan, Beheko eskoletan.

Uztailaren 20an

BERRIZ antzerkia
'Vademekun' (Gorka Pereira), 18:00etan, Eskolako patioan.

ZORNOTZA piragua
Piragua jaitsiera, 17:00etan, Ibaizabal errekan.

Uztailaren 21ean

ABADIÑO ikastaroa
Eskalada ikastaroa, Traña-Matienako rokodromoan, 09:30etik 13:30era. Izena emateko azken eguna uztailaren 16a, Errorta kultur etxean edo Udal Mediatekan.

ZORNOTZA bakarrizketa
Ane Lindane eta Raquel Torres, 20:00etan, Larrea Beheko eskolan.

Uztailaren 22an

DURANGO musika
'Diberti dantza' (Deabru Beltzak), 19:00etan, Platerueneko plazan.

OTXANDIO dantza
Sokadantza, 19:30ean, plazan.

ZORNOTZA antzerkia
'Somos la ley' (Barsanti konpainia), 20:00etan, Amorebieta IV frontoian.

Uztailaren 23an

BERRIZ antzerkia
'Jawor' (Polonia), 19:00etan, Olakueta plazan.

MAÑARIA musika
Olatz Salvador, 18:30ean.
Dupla, 20:30ean, plazan.

ELORRIO musika
The Cuban Jazz Syndicate, 20:30ean, Ganondo parkean.

OTXANDIO zinema
'Jainkoak ez dit barkatzen' filma, 22:00etan, Andikonan.

ZORNOTZA antzerkia
'Gazte' (Hika Teatro), 19:00etan, Amorebieta IV Frontoian.

'Kotondarrak' (Anita Maravillas), 18:00etan, Zornotza Aretoan

ZORNOTZA musika
Inun, 20:00etan, Euban.
Akabu + Zeinke, 20:00etan, Beheko eskolan

Zinema

:: Durango ZUGAZA

- **La Purga: infinita**
barikua 16: 19:45/22:00
zapateria 17: 17:30/20:00/22:00
domeka 18: 18:30/20:30
astelehena 19: 18:30/20:30
martitzena 20: 18:30/20:30
eguztzena 21: 18:30/20:30

- **Peter Rabbit 2**
barikua 16: 19:15 / 22:00
zapateria 17: 16:45/20:00/22:00
domeka 18: 17:45/20:30
astelehena 19: 17:45/20:30
martitzena 20: 17:45/20:30
eguztzena 21: 17:45/20:30

- **¡ A Todo Tren! Destino Asturias**

barikua 16: 19:45
zapateria 17: 17:30/19:00
domeka 18: 18:30
astelehena 19: 18:30
martitzena 20: 18:30
eguztzena 21: 18:30

- **Viuda Negra**
barikua 16: 22:00
zapateria 17: 22:00
domeka 18: 20:00
astelehena 19: 20:00
martitzena 20: 20:00
eguztzena 21: 20:00



ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

Durangaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?

Batu Anbotoko whatsapp taldera




Bidali alta
688 635 041
telefono zenbakira

*** Izan zaitez berriemaile ere.**
Bidali zure argazki eta bideoak

 **anboto**

“Aste bi barru itzuliko gara Lorentzo Recordsera abesti berriak grabatzera”

Perlata taldeak kontzertua eskainiko du Zaldibarren, uztailearen 18an, lheskide elorriarrekin batera; 18:00etan hasiko da



MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Perlata arrasatearrak 2015etik egurra banatzen ari dira euren punk rock ereserkiekin. Iaz kaleraturiko 'Duguna esateko' "ahal duten moduan" aurkezten dabilta. 2020tik Mario Cruz elorriarra batu zaie Ane Garairi (gitarra) eta Maialen Oleagari (baxua eta ahotsak). Grabatu dituzten hiru diskoak Berrizko Lorentzo Recordsen grabatu dituzte.

Zapatuan kontzertua eskainiko duzue Zaldibarren, lheskide elorriarrekin batera. Gogotsu zaudete?

Kulturaren alde egiten diren ekimenen ostean dagoen lana eskertzekoa da. Ez da momentu erraza, baina kontzertuak jo eta ikustek ateratzen gaitu zurrinbilatik. Kontzertu bakoitza bidaia txiki bat da, eta jendeak ere disfrutatzea espero dugu. Formatuaren inguruan, ez gara ohitzen, baina gauza aldatzen hasi da eta jarraitu dezala horrela,

behar dugulako gure mundu txiki horrek aktibo jarraitzea, ea laster zutik eta dantzan den.

2020ko martxoan 'Duguna esateko' diskoa kaleratu zenuten. Gustura zaudete diskoak izandako harreragaz?

Diskoa grabatu eta martxoan aurkezpena egitea zen plana, baina pandemia dela-eta ezin izan genuen nahi genuen moduan aurkeztu. Egoerara moldatu ginen, ahal izan genuen moduan, abestiak Interneten ipini, jendeak etxean grabatutako bideoekin bideo klip bat egin, abesti berriak sortu... Egoera berri honetara moldatzen ahalegindu gara, gauza batzuk onartzen, beste batzuk asmatzen, aldatzen, baina ez gara ohitzen eta oraindik ere zail egiten zaigu. Zalaparta, zarata, iluntasuna, beroa eta lurretik ibiltzea gustatzen zitzaigun, eta gustatzen zaigu, eta orain ahal duguna egiten dugu.

Zelan moldatu zarete zuzenekoak eskaintzeko edo entseatzeko garai honetan?

Ahal izan dugun moduan... Hasieran, dena bertan behera gertatzen hasi zenean, bastante frustratuta. Gero, kontzertu batzuk jotzeko aukera izan dugu eta, nahiz eta formatua ez izan guri gustatuko litzaigukeena (ez guri

2020ak eman duen onena Mario izan da; badu taldean zer eskaini, eta asko gainera

ez inori), jotzen jarraitu dugu. Ahal izan dugunean kontzertuak ikustera ere joan gara, eta horiek izan dira gure arnasguneak. Entseatzeari dagokionez, garai batzuetan nahikoa zaila izan da;

alde batetik, kontzertuak antolatu eta jotzeko aukerak zeuden, baina ez entseatzeko, ezta herri batzuetatik besteetara mugitzeko ere. Zentzurik bako egoera dezente sortu dira eta hor ibili gara ahal zen moduan, 'lerro fin gorrian'.

Zuzeneko dezente eskaini dituzue tarte honetan. Zelakoak izan dira?

Esandako moduan, kostatu egiten zaigu zuzeneko formatu honetara ohitzea. Jendearen berotasuna sentitzea behar dugu, eta horrela ez da berdina, ez da erraza aurpegiak ikusi barik, jendea geldi, jesarrita... zelan ohituko gara horretara? Hala ere, adibidez, Arrasateko txosnek sekulako egitaraua antolatu zuten San Juanetarako, bertan jo genuen eta nahiz eta mahaika eta jesarrita izan, asko disfrutatu genuen, eta oso ondo pasatu genuen, bai gure kontzertuan, eta baita besteetan ere.

Abestietako hitzak kritikoa (eta autokritikoa) dira. Zelan inspiratzen zarete idazteko?

Abesti bakoitzak bere istorioa, arrazoiak edo momentuak ditu atzean. Ez dugu bilatzen inspirazioa, eta ez daukagu funtzionatzeko modu edo mekanismorik. Baten batek bizitako egoera batek zerbait piztu du eta hase-reak, egonezinak, plazerrak edo kezkek garamatzate horri buruz idaztera. Letra asko kajoian geratu dira, momentuak eskatzen digu idaztea, eta hor irteten da barruan daukaguna. Kanpora begira, nahi baino gauza gehiagok aldatzen gaituzte, eta barrura begiratzekoak ere bagara, orduan kritika baino, erantzun bat dela esan daiteke, egoera konkretu bati erantzun bat ematea.

Berrizko Lorentzo Recordsen grabatu dituzue hiru lanak. Gustura? Zergatik han?

Oso gustura! Aitorregaz grabatzea plazer bat izaten da. Prozesua bera oso aberasgarria izaten da, eta oso eroso sentitu gara, eta emaitzagaz ere beti pozik geratu gara, horregaitik jarraitzen dugu beragaz.

Mario Cruz batu zaizue azken urte honetan. Zelan moldatzen zarete hirukote lez?

Konfinamenduaren ostean batu zen Mario taldera. Gogotsu hasi ginen entseatzeko eta kontzertuak jotzen, eta hasieratik oso ondo moldatu gara hirukote modura. 2020ak eman duen onena Mario izan da. Badu zer eskaini, eta bagabiltza gauza berriak prestatzen.

2015ean sortu zenuten Perlata, baina musikaren munduan lehenagotik ere ibilitakoak zarete. Azken urteetan emakume gehiago dabil taula gainean ala gehiago ikustarazten da emakumeen lana?

Gure estiloan, edozein kartel hartuta, ia denak dira mutilez osaturiko taldeak. Gai delikatu da guretzat, zalantza betetzen gaituena, eta lerro bitan erantzuteko zaila, baina denboragaz eta tragotxo bat hartuaz gustura asko eztabaidatzeko gaia. Batzuetan galdetzen diogu geure buruari, deitzen digutenean, benetan deitu diguten egiten duguna gustatzen zaielako edo kupo bat betetzeko. Horren aurrean, sortzaile moduan zein lekutan geratzen gara? Oso leku onean ez. Eta, bestalde, gure aldetik "emakume" edo "neska" izatea zer den ere zalantza ipintzen dugun momentutik kate horiek apurtzeko lana egunero egiten gabiltzan aldetik, horrelako galderei erantzuteko gogorik ere ez dugu izaten askotan. Baina argi dago egoera zein den, eta oraindik ere lan handia dago egiteko, bai gizartean, bai musikan, eta musikaren bitartez ahalegintzen gara eragiten.

Aurrera begira, zer asmo dituzue?

Aste bi barru Lorentzo Recordsera itzuliko gara, abesti berriak grabatzera. Laster aterako dugu zerbait, baina oraindik hori baino ezin dugu aurreratu. Bestalde, uztailean zehar, Zaldibarrekoaz gainera, uztailean beste kontzertu pare bat dugu, 24an Zubietan eta 29an Gorka lako kantuan.

R.P.S. 214/06
A. Urreta podólogo

Ainara Urreta Jainaga

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

Herriko gudarien kalea, 10 behea - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

SCHMIDT
Home SCHMIDT Home

Montatzaileak behar ditugu. Deitu edo bidali kurrikulumak
info@schmidt-abadiano.com

605 740 176

SCHMIDT ABADIÑO



'Loreak eta zauriak', Xabier Leteri kantari.

Leteren omenezko 'Loreak eta zauriak' diziplina arteko ikuskizuna Elorrion

Emanaldia zapatuan izango da, hilak 17, 20:00etan, Ganondo parkean (euriagaz Arriolan)

MUSIKAIRE • A.M.

Bertsoz, kantuz eta musikaz osaturiko diziplina arteko emanaldia da *Loreak eta zauriak*. Xabier Leteri omentzea da ikuskizunaren helburua, baina bere kantuek gogoratzeaz haratago, Leteren kanten eta melodien bitartez gaur egungo gizarteari begiratzeko dion proposamena da. Hainbat bidaia proposatzen du gainera, 70eko hamarkadatik 2020ra, bizitzatik heriotzera, eta *ni-tik gu-ra*, besteak beste.

Emanaldian Xabier San Sebastianek (ahotsa eta gitarra), Jose-rra Senperenak (pianoa), Quico

X. San Sebastianek, J. Senperenak, Q. Pugésesek eta B. Gaztelumendik parte hartzen dute ikuskizunetan

Asteburuan Juanma Urriza 5tet-ek eta Paul San Martinek kontzertuak eskainiko dituzte

Pugésesek (biolontxelo) eta Beñat Gaztelumendik (bertsoak) parte hartzen dute.

Musikaire

Ikuskizuna zapatuan izango da, hilak 17, 20:00etan, Ganondo parkean. Ez da izango Musikaire jaialdiaren barruan asteburuan egingo den emanaldi bakarra. Gaur, barikua, Juanma Urriza 5tet taldeak Hertzainak taldearen doinueta oinarrituriko abestiak joko ditu. Domekan, Paul San Martinek kontzertua eskainiko du.

Bartolome Ertzillako hiru ikaslek goi mailako ikasketak egingo dituzte

Armentiak, Hernandezek eta Zubizarretak Musikenen eta Nafarroako kontserbatorioan ikasiko dute

MUSIKA • A.M.

Eñaut Armentiak eta Iker Hernandezek plaza bana lortu dute Donostiako Musikenen. Bestalde, Maider Zubizarretak Jazz Pedagogia ikasiko du datorren ikasturte-rik aurrera, Nafarroako Goi Mailako Kontserbatorioan. Armentia baxu elektrikoa jotzeko ikasketak egiten dabil, eta Hernandez bateria; hauek biek Nafarroako kontserbatorioan ikasteko plaza ere atera zuten, baina ikasketak Musikenen egitea aukeratu

zuten. Durangoko Bartolome Ertzilla Musika Eskola eta Kontserbatorioak garrantzitsutzat jo du aukeraketa, "musikako goi mailako ikastetxeetan eskaintzen diren plazak oso urriak direlako eta konpetentzia itzela delako". Goi mailako zentroetan plaza lortzeko, hiriburuetako kontserbatorioekin lehiatu behar dela nabarmendu dute Bartolome Ertzillatik; izan ere, tamaina ertaineko zentroa da Durangoko Bartolome Ertzilla.



Iker Hernandez, Maider Zubizarreta eta Eñaut Armentia.

Gai librean

I(ra)ksten

2017ko apirilean eman nuen nire lehenengo klasea unibertsitatean. 24 udaberrirekin eta doktoretza hasi berri, momentu horretan ezin igarri jarduera horrek nire militantzia ondugabeari esanahi bat emango zionik.

Zaila da hitzekin azaltzea irakasteak zer suposatzen duen niretzat. Iruzurtiaren sindromearekin bizitzera ohitzea ez da erraza. Izan ere, klase bat prestatzen dudana oro, dozenaka gazteren formakuntzaren zati bat (txikia bada ere) nire gain egotea gehiegizko ardura dela sentitzen dut. Era berean, sentsazio horrek berak erabateko apaltasuna mantentzera laguntzen dit, irakasteak ezjakintasunez eta zalantzez bustita dagoen izaki soil bat besterik ez naizela gogorazten didalako.



Ritxi Blanco Aguilera
Ikerlaria

Zaila da hitzekin azaltzea irakasteak zer suposatzen duen niretzat. Iruzurtiaren sindromearekin bizitzea ez da erraza

Aurreko zutabe batean esan bezala, ezagutza barik izaera errebeldea kea besterik ez da bilakatzen

Hori onartuta, urteetan zehar metatu ahal izan dudana ezagutza sistematizatu eta transmititzea da nire helburu bakarra, konpromiso hirukoitzarekin: Nire buruarekin, nire ikasleekin eta nire irakasleekin izan zirenekin hartutakoa, oinarrituko etikak gidatutako agintea bailitzan. Sistemak inposatutako muga guztiekin ere, mendeetan zehar kristaldutako ezagutza-kate tekniko eta filosofikoa ez etetea da jomuga. Ezagutza publikoa baita, komunitarioa, guztion ondarea. Are gehiago, aurreko zutabe batean esan bezala, ezagutza barik izaera errebeldea kea besterik ez da bilakatzen, norbanako (auto)kritiko eta autonomo bihurtzeko aukerak lehertuz.

Zer da, ba, irakastea ikastea ez bada? "Barkamena eskatzen, isilik egoten, gehiago entzuten (...) iraganetik, orainetik, etorkizunetik ikasten." Hau ez da behin ere gelditzen.

“Erreferente bihurtzeaz gainera, erakutsi gura dugu Abadiñon badagoela kirolaz eta bizikletaz gozatzeko alternatiba bat”

Abadiñoko Ganbarru txirrindulari elkarteak urtebeteko ibilbidea egin du. Gustura daude orain artekoagaz, eta aurrera begirako plan ugari dute buruan



Endika Zarrabeitia eta Ander Urizar.

TXIRRINDULARITZA • JOSEBA DERTEANO
Endika Zarrabeitia Salterain (Abadiño, 1984) eta Ander Urizar Azkarate (Abadiño, 1984) Ganbarru txirrindulari elkartearen kideak dira. Gutxi gorabehera, orain urtebete sortu zuten taldea, eta orain arteko ibilbidearen balantze positiboa egin dute. Bizikletan irteerak antolatzen jarraitzeaz gainera, taldea herritarrei zabaltzea gura dute.

la urtebeteko ibilbidea egin duzue. Hutsune bat betetzeko asmoz sortu zenuten taldea?

Endika Zarrabeitia: Iazko uztailean ekin genion honi, domeka batean, Lemoara bidean bizikletan gindoazela. Elkarri komentatu genion Abadiñon horrelako talde baten beharrez gurea. Zikloturismoaren inguruko jendea batzea, Euskal Herriko lurraldeak ezagutzeko eta euskara sustatzeko dira gure helburuak. Gure artean koronabirus kasu positiboak eta konfinamenduak genituela ekin genion lanari.

Ander Urizar: Lehenagotik bizikletagaz hartu-eman izan duten batzuk eta herrigintzako beste batzuk elkartu gara. Ekarpenean zikloturismoa egitea da asmoa, ez lehiatik. Askotariko jendea batu gura dugu. Bizikletan egunero dabilena, domeketan irteten duena zein seme-alabekin hilean behin dabilena.

“Nahiz eta sorreran sei bat lagun egon, proiektua herrira zabaltzea gura dugu”

ENDIKA ZARRABEITIA

Nondik dator Ganbarru izena?

E.Z.: Urkiola aldean dagoen ur amildegi moduko bat da.

A.U.: Leku emblematikoa da. Atxartetik Txakurzulorako pistan dagoen errebutako ingurua da Ganbarru, aldatsa amaitzen den

lekua hain zuzen ere. Mendizaleen eta txirrindularien artean leku ezaguna da.

E.Z.: Izen esanguratsua da, guri ilusioa eragiten digu.

Hile batzuk pasatu dira irteerak antolatzen hasi zinetenetik. Zelakoa izan da orain arteko ibilbidea?

A.U.: Ondo joan dela esango nuke. Asteburuetan irteerak egin ditugu. Beti agertu izan da jendea.

E.Z.: Lehenengo irteera euripean egin genuen. Zeanuri aldera joan ginen, 11 bat lagun. Bigarren eta hirugarren irteeretan ere agertu zen jendea. Errepideko irteera izan zen eurretari bat. 25 lagun batu ginen. Bestea, baso irteera izan zen eta 16 herritar elkartu ginen. Gerora, koronabirusa delata jaisieratxo bat egon zen jende kopuruari dagokionez. Seiko taldetan mugitu gara gehienez ere. Ez dugu deialdi ofizialik egin. Baina, tira, oso pozik gaude. Badago jende bat finkoa dena, eta beste batzuk tarteka agertzen direnak.

A.U.: Taldearen jarduna ahoz aho dabil zabaltzen. Apurka-apurka doa. Azken finean, herriari begirako ekintza bat da eta iruditzen zait badabilela bere bidea egiten.

E.Z.: Nahiz eta sorreran sei bat lagun egon, proiektua herrira zabaltzea gura dugu. Herritarrei berba eman gura diegu. Batzar ireki bat egin gura dugu, kideek Ganbarruren bide orria markatu

“Jendeak ezagutzen bagaitu eta gure ekintzetan parte hartzen badu, helburua beteta egongo da”

ANDER URIZAR

dezaten. Gu bidelagun izango gara. Berbaldiak, bizikletaren mekanikari buruzko ikastaroak eta bestelako irteerak ditugu buruan. Egitasmorik arrakastatsuen arroparena izan da. Maillot

Endika Zarrabeitia eta Ander Urizar

Ganbarru txirrindulari elkarte

ABADIÑO | 1984

ugari saldu dugu. Ganbarruko arropagaz jantzitako jende asko ikusten dugu. Horrek poza sortzen digu. Argi dugu hau apurka-apurka handituko den bola bat izango dela.

Beraz, txirrindulari irteeretan mugatu barik, beste gauza batzuk egiteko gogoia ere baduzue.

E.Z.: Oso gauza desberdin bi ditugu buruan. Bat hitzaldiena da. Bestea, Gamarteko herritarrekin (Nafarroa Beherea) anaiarte bat osatu eta irteerak Ipar Euskal Herriko lurraldeetara ere antolatzeko. Berdin Euskal Herriko beste txoko batzuetara zabalduta.

Inoiz komentatu duzue taldearen betebeharrak ere badela kideen arteko mailaketarik ez sortzea? Hau da, inor ez dadila bestea baino gutxiago sentitu.

A.U.: Taldekoek elkarrekin irteeretan badute, beti ahalegintzen gara elkarrekin bueltatzen. Gertatu daiteke une konkreturen batean baten bat atzean geratzea. Beti itxaroten dugu, ezelako lehiarik barik. Ez dugu gura jendea atzean geratu izanaren sentazioagaz etxeraterik. Jendea dagokionez, denerik dago. Traña-Matienako jendea ere etorri zaigu. Durangarrak ere bai. Badago bizikletan irteteko lagunarte bat bilatzen duen jendea. Horixe da gure helburua. Bueltan lagunartean egitea.

E.Z.: Jendea oso pozik dago. Jendeak eskertu du, apur bat azpitik egon arren, horrelako lagunartean. Gure irteerak 09:00etan hasten dira eta ibilbide erdian kafea edo dena delakoa hartzen dugu. Berriketalditxorako alternatiba bat ipintzea ere inportantea dela deritzogu.

Demagun 2022ko uztailean gaudela. Non ikusi gura zenukete Ganbarru?

E.Z.: Gura duguna da herrian erreferente bat bihurtzea eta jendea erakustea herrian badagoela kirolaz eta bizikletaz gozatzeko alternatiba bat.

A.U.: Ados nago. Esango nuke gure helburua herriaren parte izatea dela. Jendeak ezagutzen bagaitu eta gure ekintzetan parte hartzen badu, helburua beteta egongo da.

June Arbeok Europako txapelketako 12. postuagaz amaitu du denboraldia eta 23 urtez azpiko ibilbidea

2022an pistetara bueltatzen denean maila absolutuan arituko da; atleta durangarra "pozik" dago aurtengo denboraldiagaz.

ATLETISMOA • JOSEBA DERTEANO

Europako txapelketako parte hartzeagaz, June Arbeok (Durango, 1999) amaiera eman dio aurtengo denboraldiari eta baita bere kirol ibilbideko etapa bati ere. 2022ko otsailean 23 urte egingo ditu eta, aurrerantzean, pistako txapelketak maila absolutuan egingo ditu.

Joan zen asteburuan Tallinen (Estonia) lehiaturiko 23 urtez azpiko Europako txapelketan 12. tokian amaitu zuen 3.000 metroko oztopodun proba. Finalerdietan lan bikaina eginda sailkatu zen finalera; bere markarik onenetik (10.02.36) segundo bi eskasera geratu zen: 10.04.13. Handik egun bira lehiatu zuen finala.

"Finalean erritmoa aldatzen ahalegindu nintzenez, hankak oso nekatuta sentitzen nituen"

Hamar onenetan geratu gura zuen, baina atarian geratu zen. "Erritmoa aldatzen ahalegindu nintzenez hankak oso nekatuta igartzen nituen, indarririk barik zelanbait esateko. Suposatzen dut ez nengoela finalerdietako aha-



Aurten, 3.000 metroko oztopodun probako bere markarik onena ondu du Espainiako txapelketan.

leginetik guztiz errekuiperatuta. Ez nago ohituta lasterketa bi hain jarraian lehiatzera", azaldu du.

Behetik gorako bidea

Arbeok behetik gorako bidea egin du aurten. Hasieran, sasoi hartzea kostatu zitzaion. Azaroan COVIDaz kutsatu eta 20 egunean lehiatu barik egon zen. Pistetara bueltatu,

eta segituan berriro gelditu behar izan zuen zuntz haustura baten ondorioz. Udako denboraldian eman du bere onena. Espainiako

Aurten, apiriletik aurrera eman du bere onena; Espainiakoan bere marka pertsonala hobetu zuen

txapelketan bere marka pertsonala hobetuz sailkatu zen Europakora. "Orokorrean, denboraldiagaz oso pozik nago. 10 minututik jaitea gura nuen, baina ez da posible izan", baloratu du.

Urtea amaitu arteko kros denboraldia 23 urtez azpikoan lehiatuko du. 2022tik aurrerako guztia maila absolutuan korrituko du.

Anton Barrutia iurretarra hil da, 88 urteagaz, Durangaldeak inoiz izan duen txirrindularirik handienetarikoa

1953tik 1966ra profesional lez aritutako 13 denboraldietan 52 garaipen eskuratu zituen errepidean nahiz ziklo-krosean

TXIRRINDULARITZA • JOSEBA DERTEANO

Durangaldeak eta euskal txirrindularitzak inoiz eman duen ziklistarik handienetarikoa joan da asteon: Anton Barrutia iurretarra martitzen hil zen, 88 urteagaz.

1953tik 1966ra profesional lez emaniko 13 urteetan 52 garaipen eskuratu zituen errepidean nahiz ziklo-krosean. Gero, 1971tik 78ra KAS taldeko zuzendaria izan zen. Javier Elorriaga txirrindulari ohiak ondo ezagutzen zuen Barrutia, hainbat urtean bere zuzendaria izan zen-eta KASen. "Umoretsua zen, baina baita serioa ere. Gauzak ondo egitekoa zen", dio Elorriagak. Txirrindulari lez, "bizia eta esprintetan arina" zela gogoratu du.

Historiarako geratu da Barrutiak 1960an Tolosan lehiaturiko

munduko ziklo-kros txapelketan egin zuena. Lehenengo itzulian jausi eta azkenengo geratu zen arren, ez zuen etsi, eta apurka-apurka atzetik aurrerako bidea

egin zuen, azkenean laugarren tokian helmugaratu arte. Elorriagak bertatik bertara ikusi zuen lasterketa hura eta Barrutiak lan "itzela" egin zuela gogoratu du.

Euskal txirrindulari batek munduko ziklo-kros txapelketa bateko nagusien mailan inoiz lortu duen posturik onena da oraindino ere Barrutiak orduan lortutakoa.



Errepidean ez ezik ziklo-krosean ere makina bat garaipen lortu zituen Anton Barrutiak.

Jokaldia

Gotzon Gómez
Errugbia



Denboraldi korapilatsua

Bukatu berria den errugbi denboraldia oso korapilatsua izan da ditxosozko COVID-19aren eraginez. 2020-21 denboraldian zerbait azpimarratu beharko bagenu zelaietako harmailetan zaletuen falta litzateke dudarik gabe. Jakina da egoera berdinean egon direla gainerako kirolak, baina gurean zaletuen indarra eta animoak ezinbestekoak dira.

Europako Txapelketa handietan, Stade Toulousainek irabazi du Frantziako Top 14a zein European Rugby Champions Cupa, ipar hemisferioan bere nagusitasuna erakutsiz.

Espainiako Ligan Valladolideko VRACekoak gizonetzkoen txapeldunak izan dira eta Madrileko Cisnerosekoak emakumezkoen txapeldunak. Liga hauetan Ordizia, Getxo gizonetzko mailan eta Eibar emakumezkoetan aritu direlarik. Getxo jaitsi egin da eta datorren denboraldian, bere lekua ohorezko mailan Gernikak hartuko du ibilbide bikaina egin ostean.

Euskal Liga beste kontu bat izan da, goiko mailakoen baliabiderik ez dituzte, PCRak eta halakoak partiden aurretik egiteko, eta jardunaldi ugari bertan behera edo atzeratu egin behar izan dituzte jokalariek emandako positiboengatik. Hala ere, DRTko neskek zein mutilak gogotsu aritu dira. Mutilak bigarren postuan sailkatu dira Sarako Izarren atzetik, eta neskek taldea egonkortzea zuten helburu, eta lortu dutela esan daiteke.

Formakuntza mailetan, ezohiko liga berezian partida batzuk jokatu ahal izan dituzte kadete zein gazte mailakoek, baina eskolan aritzen diren umeek entrenamenduak baino ez dituzte burutu, pena bat da baina behintzat elkartzeko aukera izan dute.

Zerbait azpimarragarria bada go da honetan errugbi mailan British eta Irish Lionsen bira litzateke. Lau urterik behin egiten dute, eta aurten Hegoafrikatik arituko dira, ohiko hego hemisferiko bira bideratuz. Nabarmen-tzekoak dira egungo txapeldunaren aurkako norgehiagokak. Hegoafrikaren aurkako partidak, herenegun izan zen lehenengoa, uztailaren 24 eta 31n eta abuztuaren 7an hurrengo hirurak. Goi mailako errugbiaren gozatzeko aukera izango dugu.



ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com



AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ez. • 48200 DURANGO



ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com



Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es



DURANGO
MADALENA: BERRIA. (5 urte). 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. 2 terraza. Trastelekua eta garajea.
317.000€ C.E.E=B



ABADIÑO
ABADIÑO: 2 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. 2 terraza. Ganbara. Ikuspegiak.
165.000€ C.E.E=E



IURRETA
IURRETA: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. 15 m2-ko trastelekua. Parking pribatua. Eguzkitsua. Bizitzera sartzeko moduan.
160.000 € C.E.E= F



DURANGO
ZEHARMENDIETA: Berriztatua. Eguzkitsua. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Bizitzera sartzeko moduan.
130.000 € C.E.E=G



DURANGO
MIKELDI: Etxebizitza altua. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Igogailua.
155.000 € C.E.E=E



DURANGO
MATIENA: 3 logela, komuna, sukaldea, despentsa eta egongela. Terraza. Gela. Komuna. Sukaldea. Ganbara. Igogailua. Etxe osoak kanpora ematen du. BIZITZERA SARTZEKO MODUAN.
155.500 € C.E.E=E

// ETXEBIZITZAK SALGAI
DURANGO: Pablo Pedro Astarloa. Pisu berriztatua. 3 logela, komuna, sukaldea jantokiagaz eta egongela.
DURANGO: Antso estegiz. 3 logela, 2 komun, sukaldea-jangela eta egongela. ganbara.
DURANGO: Hegoalde kalea. Adosatua salgai. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobea.
MAÑARIA
KIRIKIÑO KALEA: 3 logela, komuna eta sukaldea. Balkoia. Igogailua. Argitsua.
ABADIÑO
ETXEAZPIA KALEA: Pisu zabala, 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiagaz eta egongela. Ganbara. Garaje itxia aukeran.
BERRIZ
ELIZONDO ETXETALDEA: Pisu guztiz eguzkitsua. Egongela, jangela, sukaldea, 2 komun eta 3 logela. Garaje itxia aukeran.
BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.
ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

//LURSAILAK SALGAI
DURANGO: 2.020 m²-ko lursaila. Durangotik oso gertu. Zerratua eta zuhaitzekin. Eskaintza paregabea.
GAZTELUA: 10.000 m²-ko lursaila. Nekazaritza-lurra. Leku onean. Egokia.
IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI
ATXONDO: AXPE. Baseri ederra salgai. Berriztatuko. Kokapen izugarria.
ELORRIO: Araunas auzoa. Baseri eder bat eraikitzeko. 10.000 m². Ikuspegi izugarriak.
MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.
MAÑARIA: Baserrira salgai. Herrian bertan. 3.000 m²-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.
ELORRIO: Aldape auzoa. Baserrira, berriztatuko. 3 hektareako lursaila. Prezioa: 115.000 €
MENDATA: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserrira. Berriztatuko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.
DURANGO: Adosatu ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatuko.

//BULEGOAK ALOKAIUAN
ABADIÑO
30 m²-tik gorako bulegoak. 300 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.
//GARAJE ITXIAK SALGAI
Durangon, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIUAN
Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.
//LOKAL INDUSTRIALA ALOKAIUAN
IURRETA: Arriandi. 3.036m²-ko lokala alokairuan. Aldagelak, komuna eta 5 tonako zubi garabiagaz.
//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI
MATIENA: 460 m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

www.inmoduranguesado.com
DURANGO
MONTEBIDEO/EZKURDI: 118 m². Egongela, sukaldea, jangela, 3 logela eta 2 komun. Etxe osoak kanpora ematen du. (Ipar-mendebaldea) Argitsua. Leku onean kokatua. Igogailua. NORBERE GUSTURA JARTZEKO.
229.000 € C.E.E:E



MATIENA
TRAÑAETXOSTE: 69 m². Egongela, sukalde jantzia (berria), 3 logela eta komuna. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (ipar-mendebaldea). Leku onean kokatua. Igogailua. KONTSERBAZIO EGOERA ONEAN.
180.000 € C.E.E:Bidean



DURANGO
JOSE MARIA DE IPARRAGUIRE: 79 m². Egongela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun eta despentsa. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du. (mendebaldea) ARGITSUA. LEKU ONEAN KOKATUA. Garajea. Igogailua. Bizitzera sartzeko moduan.
262.000€ C.E.E:E negoziagarria



DURANGO
JUAN DE OLAZARAN: 5 urteko antzinatasuna. 79 m². Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. 2 balkoi. Etxe osoak kanpora ematen du (hego/mendebaldea). Argitsua eta leku onean kokatua. Garajea eta 7 m²-ko trastelekua. Ezin hobea.
317.000 € C.E.E:B



ABADIÑO
ITURRITXO: 16 urteko antzinatasuna. Egongela, sukalde jantzia, 2 logela, eta 2 komun. 2 balkoi. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua. (Hegoalde) Igogailua. Ezin hobea. 14,05 m²-ko garajea, 4,63 m²-ko trastelekua eta 11 m²-ko ganbara barne. Leku onean.
200.000€ C.E.E: E



DURANGO
ASKATASUN ETORBIDEA: 79 m². Egongela, sukaldea (berriztatuko), 3 logela eta komuna (berriztatua). 2 balkoi. Etxe osoak kanpora ematen du. (Ipar/hegoaldea). Argitsua. Leku onean kokatua. Igogailua zero kotan. 8 m²-ko ganbara. Gauza batzuk berriztatu behar dira.
176.000 € C.E.E: G

//DURANGO
ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **320.000 € / E.E.Z.=E**
BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**
EZKURDI PLAZA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Igogailua. **LEHEN 321.500 € / ORAIN 288.000 € / E.E.Z=F**
FRAY JUAN DE ZUMARRAGA: 3 logela, sukaldea, egongela, bulegoa eta komuna. **220.000 € / E.E.Z=G**
GOIENKALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **155.000 € / E.E.Z=G**
KOMENTU KALEA: 4 logela, sukaldea balkoiagaz, egongela balkoiagaz, bainugela eta komuna. **LEHEN 160.000 € / ORAIN 140.000 € E.E.Z=G**
SAN AGUSTINALDE: 2 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. **200.000 € / E.E.Z=F**
SAN FRANZISKO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garaje itxia. Igogailua onartuta. **195.000 € / E.E.Z=E**
SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeko 600 m²-ko lurzoria. **LEHEN 640.000 € / ORAIN 550.000 €**
TXATXIENA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. Garajea eta trastelekua. **LEHEN 390.000 € / ORAIN 375.000 € / E.E.Z=E**
TXIBITENA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Igogailua. Ganbara eta garajea. **250.000 € / E.E.Z=E**
//ATXONDO
ARRAZOLA ERREPIDEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **170.000 € / E.E.E=BIDEAN.**
//BERRIZ
BERRIZBEITIA KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia. **120.000 € / E.E.Z=F**
MURGOITIO AUZOA: Berreraikituko baserrira lurzoruagaz. **290.000 €**
//IURRETA
OROZKETA AUZOA: 4 logela, 2 sukalde, egongela eta 2 komun. Terraza. Lursailagaz. **LEHEN 650.000 € / ORAIN 595.000 € / E.E.Z=E**
//MAÑARIA
KIRIKIÑO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. 2 balkoi. **150.000 € / E.E.Z= BIDEAN**
//OTXANDIO
ARTEKALEA KALEA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. **60.000 € / E.E.Z=G**
GONBILAZ AUZOA: Baserrira. 5 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Terraza. Ganbara. Lursailagaz. **350.000 € / E.E.Z=BIDEAN.**
//ALOKAGAI
Etxebizitzak, bulegoak, pabilioiak, lokal komertzialak eta garajeak. Bulegoan galdetu.
//GARAJEAK SALGAI
Durangon eta lurretan, aukera desberdinak: garaje itxiak, partzelak eta partzelak trastelekuagaz.
//BERRIAK - DURANGO
ANTSO ESTEGIZ: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. Igogailua. Garaje itxia aukeran. **180.000 € / E.E.Z =E**

Eskelak jartzeko: 946 816 558
edo anboto@anboto.org

Eskela mota guztiak

- Anboto paperean + anboto.org-n: 100€ (Anboto txartela dutenentzat 90€)
- Paperean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)
- Webgunean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)

Botikak

BARIKUA, 16 09:00-09:00

CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - **DURANGO**

GOIRIA, MARI CARMEN
Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ZAPATUA, 17 09:00-09:00

NAVARRO Artekalea 6 - **DURANGO**

JAIO-ABENDIBAR
Errekakale 6. - **ELORRIO**

GOIRIA, MARI CARMEN
Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

09:00-13:30

BAZAN DIAZ Urribarri 5 - **DURANGO**

SARRIA Sasikoa 17, **DURANGO**

DE DIEGO Intxaurrenondo 22. - **DURANGO**

CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - **DURANGO**

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-14:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

DOMEKA, 18 09:00-09:00

ETXEARRIA
Montevideo etorb. 2. - **DURANGO**

GOIRIA, MARI CARMEN
Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ASTELEHENA, 19
09:00-09:00

BAZAN DIAZ Urribarri 5 - **DURANGO**

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

MARTITZENA, 20
09:00-09:00

DE DIEGO Intxaurrenondo 22. - **DURANGO**

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

EGUAZTENA, 21 09:00-09:00

SAGASTIZABAL
Askatasun etorb. 19 - **DURANGO**

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

EGUENA, 22 09:00-09:00

MUGICA Andra Maria 9 - **DURANGO**

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENEKO 14:00AK ARTEKO EPEA



GOZATU GOZATEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozategia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu.** Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion-agurrekin batera.



Oihane Echevarriak uztailaren 17an 11 urte egiten ditu. Egun on-ona pasa! Muxu bat Carmenen partez.



Maribi Arregik eta **Jose Ramon Gallastegik** urrezko ezteiak betetzen dituzte uztailaren 17an. Zorionak bihotz-bihotzez!



Zorionak, glamorous! Egun zoragarrixe pasau. Kriantzatxo bat az ospatu biku zure urtegunere, ezta? Mosu handi bat!



Uztailaren 14an **Lucian** urtebetetze egune izan zan. Zorionak, neska handi!

Eguraldia

ZAPATUA ↓ 26° / 13° ☁

ASTELEHENA ↓ 29° / 16° ☀

EGUAZTENA ↓ 27° / 17° ☁

DOMEKA ↓ 27° / 14° ☀

MARTITZENA ↓ 30° / 16° ☀

EGUENA ↓ 29° / 16° ☀

Seguros Bilbao

RUEDA BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda

Landako etorbidea, 1 DURANGO

ORDUTEGI BERRIA: Astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 15:30era
Zenbaki hauetan emango diogu lehentasuna bezeroari: 946 20 27 10 / 688 86 11 37

Egunero eskainiko dizugu gure arreta ondorengo helbidean: jrueda@segurosbilbao.com

“Probak egin ahal izateko errepikatuko nuke, baina telebista kamerarik barik”

'El Conquistador del Caribe' reality-an bizi izan duen esperientziak zapore gazi-goza utzi dio Cynthia Cardenas; urte eta erdi da durangarra Madrilen bizi dela



Cynthia Cardenas Romero

'El Conquistador del Caribe' reality-an parte hartu du

DURANGO | 1989

DURANGO • AITZIBER BASAURI

laz atarian geratu zen. Cynthia Cardenasek, 'Txinti'-k, ez zuen 'El Conquistador del Caribe' telebista saioan parte hartzea lortu. Aurren, ostera, eskuratu du Karibera joateko txartela. Dominikar Errepublikako Los Haitises parke nazionalen bizitakoa, esperientzia lez, "bakarra" dela aitortu du.

Zelako esperientzia izan da? Itxaroten zenuen modukoa izan da?

Esperientziak zapore gazi-goza utzi dit. Orkatilan min hartu nuen Karibera heldu eta hiru egunera, eta ezin izan dut esperientzia nik gurako nuen moduan bizi. Proba asko ezin izan ditut egin eta hori

oso frustragarria egin zait. Jokatu gura nuen, baina ezinean ibili naiz. Hala ere, itzela da!

Zerk motibatuta parte hartu duzu 'El Conquistador del Caribe' reality-an?

Muturreko egoeretan nire buruak zelan jokatzeko duen jakin gura nuen. Motxilera moduan ibili naiz Txilen, hilabete. Baina gura nuen tokian lo eginda, gura onena janda... Bada, halako egoeran, halako leku batean, nire burua zelan moldatuko litzatekeen jakin gura nuen: janariarik barik, lo egin ezinik, arroparik barik, dena zikin, usainak...

Lortu duzu zeure burua probatzea?

Bai. Eta oso harro nago egin dudana ibilbideagaz.

Pentsatutakoa baino askoz ere gogorragoa izan da esperientzia. Gainera, ikusi dut gainelikatuta bizi garela, guztiz!

Zer ekarri duzu bueltan motxilan?

Bizitza gozatzeko gogo. Egunero familia baloratuz, lagunak baloratuz... Pentsatutakoa baino askoz ere gogorragoa izan da esperientzia. Gainera, ikusi dut gainelikatuta bizi garela, guztiz!

Behin etxean, zer egin zaizu gaxena? Ez dakit zer esan... bueltan etorri-

ta, kritika mordoa jaso dut, eta ez gaude prest hori guzti hori jasotzeko. Hala ere, horri alderik onena ateratzen diot. Izaera edo pertsonalitate indartsua dudala konturatu naiz, eta kritikek ez didate eragin. Ezagutzen nautenen iritziak eta kritika konstruktiboak onartu eta kontuan hartu ditut, eta beste guztia baztertu egin dut. Hori bizitzea egin zait gaxa.

Fisikoki ere egokitu behar izan duzu?

Bai. Berritro jaten hasi, kirol maila berreskuratu, lesioa sendatu... ekainean hasi nintzen berritro nire marketan sartzen. Oso gogorra izan da.

Ezagutzen nautenen iritziak eta kritika konstruktiboak onartu eta kontuan hartu ditut, eta beste guztia baztertu egin dut

Karibetik bueltan zer izan da egin duzun lehenengo gauza?

Txakurra hartu eta mendira joan! **Irabazle ikusten zenuen zeure burua?** Hasieran, horixe izaten da helburua, finalera heltzea. Baina orkatilan min hartu eta gero, akabo! Egun bat gehiago irautea zen gero helburua, eustea. Nire kondizioetan, nahikoa urrun heldu naizela uste dut. Azkenerako burua ez nuen guztiz han.

Zelan prestatu zara?

'Crossfit'-a egiten dut eta korrika egiten dut mendian. Igeriketa da nire ahulgunea, eta, Madriletik irteterik ez nuenez, igeriku batean jardun nuen praktikatzeko, hile eta erdian. 'Yumar' praktikatzeko ere ahalegindu nintzen, eskalada eskoletan galdetuz, baina ez nuen lortu.

Bizi izandako momentuetariko bat aukeratzea eskatuz gero...

Dueluan banderaxoa hartu nuenekoa. Momenturik txarrena, orkatila bihurtu nuenean. Guztiz baldintzatu zuen nire abentura.

Errepikatuko zenuke?

Probak egin ahal izateko errepikatuko nuke, baina telebista kamerarik barik.

Zer behar du konkistatzaile batek?

Burua bere lekuan izatea.

Lau-hortza

Markel Sanchez Zelaia Behargina



Oporrak eta sozialismoa

Irratia isiotu dut goizean eta Habanako kaleak ezkaratzen sartu zaizkit: jendea protestan dabil eta ni isilik horma zuriari begira, Colacao bat eskuan. Pentsatu dut protesta beti dela sanoa, munduko edozein lekutan; gero, hainbat famatu eta pertsonaia publiko entzun ditut berbetan, eta pasa egin zait. Nork kontu, Kubari buruzko irudi desberdinak datozkit burura: mojitoak eta Che, hondartza eta Alderdi Komunista, parranda eta medikuak munduan zehar. Oporrak eta sozialismoa.

Mugikorrari begiratu diot: traolak laguntza eske. Nire alokairuko pisutik irakurri dut etxebizitza bermatzen duen herrialdeak laguntza behar duela. Demokrazia galdegin dute. Durangon, astebetean hildako bi lanean, jendea kalean lo. Gero, klinika pribatuekin hitzarmenak egiten dituen bat zuzendu zaio, txerto eraginkor, doako eta unibertsala sortu duenari. Blokeoak gauza gutxi. Etorriko zaigun kolapsoari aurre egiteko hoberen prestatuta dagoen herrialdeetako batek aldaketa behar du; baina hemen, gure agintarien ahotan Abiadura Handiko Trenak, txuletoi garraioak eta hazkundera. Preso politikoen kontua aipatu du beste batek, bertako kartzelak baino, urrutikoak daudelako lepo. Amaitzeko, kubatarren alferkeriari buruzko klaxe batzuk, antsietatearen hortzetatik. Iruntsi ditut Twitter eta katiluan onena. Noan lanera. Laster oporrak hartuko ditut, eta horrek poztu nau.

Zutabe honetara ere bueltatuko naiz uda ostean. Bitartean, ondo bizi. Bi gauza opa dizkizuet, udarako eta uda osterako: oporrak eta sozialismoa.

Smurfit Kappa
Central Forestal

50 urte
EUSKADIKO
PINUDIAK
ZAINTZEN

Smurfit Kappa
Nervión